

Soziolinguistika

HIZTEGIA

Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko



KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

IVAP
HERRI ARDURALARTZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia: I.a, 2010eko

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net/euskara21

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

HITZAURREA

HIZKUNTZA EROSO eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, baliabide eta tresna egokiak beharrezkoak dira, eta eginkizun horretan leku garrantzitsua betetzen dute hiztegiek. Hizkuntzak etengabe aldatzen dira bizirik badaude, garai eta behar berrietara egokitzeko, eta, horrenbestez, hizkuntza baten modernizazioaren eta eguneratzearen prozesua ez da inoiz amaitzen. Horregatik, hizkuntzaren altxor lexikoa etengabe elikatu behar da, hizkuntza bera normalizatzeko batetik eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko bestetik. Horregatik, helburu horri jarraituta argitaratzen dugu eskuartean duzun hiztegi hau, zalantzarik gabe, euskararen erabilera erraztuko duena.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, corpus-plangintzari eta euskararen kalitateari dagokienez, Hiztegi Batua amaitu eta argitaratzea, eta datozen urteotarako terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen (EBPN VI.3.3.a).

Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) EBPNk agindutakoa gauzatzeko, hainbat ekimen jarri zuen martxan: batetik, "EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa" sortu zuen 2001ean; bestetik, Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholku Batzordearen barruan.

EUSKALTERM erabilera publikoko bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina. Banku hori metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, beti ere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planak jarraituz.

Beraz, EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko. Terminologia Batzordeari dagokio, bestalde, terminologia-alorrean dauden lehenetasunak finkatzea, lan-proposamenak egin, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea eta abar.

Lan horren guztiaren emaitza da eskuartean duzuen hiztegi hau. Hiztegia jorratzen duen eremuko erabiltzaileen premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, bai eta gure hizkuntzaren normalizazio eta eguneraketaren bidean urrats garrantzitsua izatea ere. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu guztiok, euskaldunok lexiko gero eta aberatsagoa izan dezagun gure eguneroko bizitzan ere.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 5a

Lourdes Auzmendi Ayerbe

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.net/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuen barruan. Kontratuok HPSk eta IVAPEk finantzatu dituzte, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenen bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetsuen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa.

Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia Batzordeak¹ euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da.

Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

fr français

en English

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Lionel Joly (Soziolinguistika Klusterra)

Jon Aizpurua (HPS)

Iker Etxebeste (UZEI)

Koordinatzailea: **Izaskun Osinalde** (HPS)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Jon Koldobika Urrutia, IVAPEko zuzendari nagusia

Erramun Osa, EABko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana, HPSko ordezkaria

Mertxe Olaizola, IVAPEko ordezkaria

Andoni Sagarna, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste, UZEIko ordezkaria

Xabier Alberdi, EHUko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Alberto Atxabal, aditua

Joseba Erkizia, aditua

Miel Loinaz, aditua

Asier Larrinaga, aditua

Alfontso Mujika, aditua

EREMU - ZUHAITZA



1. Psikosoziolinguistika, ideologia eta jarrerak
2. Ikaskuntza eta hezkuntza
3. Bariazioa eta barietateak
4. Estandarizazioa, planifikazioa eta normalizazioa
5. Gizarte-arloa eta antropologia
6. Hizkuntza-ukipena eta hizkuntza-gatazka
 - 6.1. Prozesuak eta fenomenoak
 - 6.2. Hizkuntzen tipologia
 - 6.3. Fenomeno linguistikoak
 - 6.4. Erabilera eta interakzioa
7. Arlo instituzionala eta zuzenbide-arloa
8. Teknikak eta metodoak
9. Soziolinguistikaren adarrak, eskolak eta korronteak
10. Hitzunen tipologia (Hego Euskal Herria)
 - 10.1. Hizkuntza-gaitasuna
 - 10.2. Hizkuntza-bilakaera (BILA indizea)
 - 10.3. Etxeko erabilera (ERABIL indizea).

OHARRA: hiztegi hau egiteko Euskal Soziolinguistikaren eremua hartu da aintzakotzat.

AURKIBIDEA

Sailkako aurkibidea

1. Psikosoziolinguistika, ideologia eta jarrerak	12
2. Ikaskuntza eta hezkuntza	20
3. Bariazioa eta barietateak	24
4. Estandarizazioa, planifikazioa eta normalizazioa	29
5. Gizarte-arloa eta antropologia	33
6. Hizkuntza-ukipena eta hizkuntza-gatazka	36
6.1. Prozesuak eta fenomenoak	36
6.2. Hizkuntzen tipologia	43
6.3. Fenomeno linguistikoak	46
6.4. Erabilera eta interakzioa	48
7. Arlo instituzionala eta zuzenbide-arloa	51
8. Teknikak eta metodoak	53
9. Soziolinguistikaren adarrak, eskolak eta korronteak	55
10. Hitzunen tipologia (Hego Euskal Herria)	58
10.1. Hizkuntza-gaitasuna	58
10.2. Hizkuntza-bilakaera (BILA indizea)	59
10.3. Etxeko erabilera (ERABIL indizea)..	63

Alfabetozko aurkibidea

Euskarazkoa	71
Gaztelaniazkoa	79
Frantsesezkoa	87
Ingelesezkoa	95
<i>Erreferentzia bibliografikoak</i>	101

EUSKARA – ERDARAK

I. PSIKOSOZIOLINGUISTIKA, IDEOLOGIA ETA JARRERAK

1

arduraren diskurtso (4)

Hizkuntza-komunitate batek irrealitatearen diskurtsoa gainditzeko bideratu beharko lukeen aldaketa politiko eta soziala. Komunitateak bere hizkuntza normaltasunez eta funtzio osoz bizi ahal izatea izango litzateke aldaketa global horren azken helburua.

es discurso de la responsabilidad

autogorroto

Ik. norberarenganako gorroto

balio sozialak

Ik. gizarte-balioak

2

bizindar etnolinguistikoa (4)

Giza talde etnolinguistikoa bati izaki kolektibo gisa eratzeko eta jokatzeko ahala ematen dioten faktore sozial eta estrukturalen multzoa.

es vitalidad etnolingüística

fr vitalité ethnolinguistique

en ethnolinguistic vitality

3

diskurtso (4)

Ideologia, uste edo mentalitate baten adierazpena, pentsamolde hori ezagutarazten duena.

es discurso

fr discours

en discourse

4

egozentrismo glotiko (4)

Hizkuntza-aniztasuna murriztu eta giza hizkuntza bakarra (norberarena) ezarri nahi duen hizkuntza-ideologia.

es egocentrismo glótico

5

ekologismo glotiko (4)

Egozentrismo glotikoari kontrajarritako hizkuntza-ideologia. Balio eta indar bereko bi behar hauek bateragarri egitean du oinarria: 1) hizkuntzen ekologia naturalari eustea, hau da, hizkuntza-nazio bakoitzak bere ondare linguistikoa zaintzeko duen eskubidearen eta arduraren bitartez, munduko hizkuntzen aniztasuna gordetzea, eta 2) esparru mugatu eta jakin batean (hizkuntza desberdinetako nazioen arteko komunikazioa bideratzeko, hain zuzen), bigarren hizkuntza bat komunikazio-hizkuntza gisa ezartzea.

es ecologismo glótico

6

enblematizazio (4)

Hizkuntza menderatua ofizial (koofizial) bihurtu eta gero, hizkuntza hori, funtsean, komunitatearen hizkuntza sinboliko gisa baino ez erabiltzea. Hizkuntza menderatzailea erabiltzen da benetako gizarte-harremanetarako hizkuntza publiko eta pribatu modura.

es emblematización

fr emblématisation

en emblematization

7

eskizoglosia (4)

Pertsona batek bere hizkuntzan gabezia linguistikoa dituela edo bere hizkerako elementu batzuk forma estandararen arabekoak ez direla konturatzen delako barne-herstura pairatzea.

es esquizoglosia

fr schizoglossie

en schizoglossia

8

estereotipo (4)

Hizkuntza edo hiztun-talde bati buruz izaten den aurreiritzi bidezko irudia. Banakako analisisirik egin gabe, multzo osoaz dugun aurretiazko iritzi hori esleitzen zaio banakoari.

es estereotipo**fr** stéréotype**en** stereotype

9

estigma (4)

Norbait edo zerbait gaitzestea dakarren marka edo ezaugarria. Zenbait egoera edo gizartetan, hizkuntza jakin bat izan daiteke marka edo ezaugarri hori.

es estigma**fr** stigmat**en** stigma

10

funtsezko balio (4)

Giza talde baten identitate kolektiboa definitzeko eta egituratzeko funtsezko-tzat jotzen diren ezaugarri sozial eta kulturaleri ematen zaien balioa.

Ezaugarri horien artean hizkuntza dagoen taldeetan, handiagoa izango da hizkuntza-atxikimendua.

es valor fundamental**fr** valeur fondamentale**en** core value

11

garbizaletasun (4)

Sin. purismo (3)

Hizkuntza batean beste hizkuntza batzuetatik hartutako hitz edo ezaugarri linguistikoak onartzearen kontrako jarrera.

es purismo**fr** purisme**en** purism

12

gizarte-balioak (4)

Sin. balio sozialak (3)

Gizartean aritzeko jokabide-arauen oinarrian dauden balioak.

es valores sociales**fr** valeurs sociales**en** social values

13

gizarte-identitate (4)

Sin. identitate sozial (3)

Pertsona batek, pertsona-multzo edo gizarte-talde bateko kide sentitzen delako, giza talde horrekin eratzen duen lotura, pertsonaren identitate orokorraren osagaia.

es identidad social**fr** identité sociale**en** social identity

14

gizarte-irudikapen (4)

Sin. irudikapen sozial (3)

Gizarte batek kategoriak, pertsonak, egoerak eta bestelako errealitateak irudikatzeke erabiltzen dituen balio, irudi, sinbolo eta eredu multzoa.

es representación social**fr** représentation sociale**en** social representation

15

gizarte-psikologia (4)

Sin. psikologia sozial (3)

Pertsonak gizarte-ingurune eta -egoeretan izaten dituzten portaerak eta prozesu psikologikoak aztertzen dituen diziplina.

es psicología social**fr** psychologie sociale**en** social psychology

16

gune sinboliko (4)

Hizkuntzari garapen osoa ematen dioten hiztunez osatutako nukleoa, hau da, hizkuntzaren garapen osoa eskuratu duten hiztunez osatutakoa.

- es** espacio simbólico
- fr** espace symbolique
- en** symbolic space

17

hizkuntza ezkutatzte (4)

Pertsona ezezagunen aurrean, gailen den hizkuntza erabiltzea lehen aukera gisa, norberaren hizkuntza baztertuta.

- es** ocultación lingüística
- fr** occultation linguistique
- en** linguistic occultation

18

hizkuntza nazional (4)

Herralde baten naziotasunaren ezaugarri gisa aitortzen den hizkuntza.

- es** lengua nacional
- fr** langue nationale
- en** national language

19

hizkuntza-abertzaletasun (4)

Hizkuntza aberriaren gorengo ezaugarritzat jotzen duen ideologia.

- es** patriotismo lingüístico
- fr** patriotisme linguistique
- en** linguistic patriotism

20

hizkuntza-alienazio (4)

Hizkuntza-gatazkako egoera luze batek norberaren hizkuntzaren aurka sor dezakeen sentipen-multzoa. Jatorri linguistikoa ‘ahaztea’ edo ukatzea eta norberaren hizkuntza baztertzea, ez erabiltzea eta ondorengoei ez transmititzea eragin dezake.

- es** alienación lingüística
- fr** aliénation linguistique
- en** linguistic alienation

hizkuntza-atxikimendu

Ik. hizkuntza-leialtasun

21

hizkuntza-aurreiritzi (4)

Hizkuntza edo hizkuntza-komunitate bati buruzko aurreiritzia.

- es** prejuicio lingüístico
- fr** préjugé linguistique
- en** linguistic prejudice

22

hizkuntza-darwinismo (4)

Hizkuntzek Darwinen eboluzio-teorien arabera bilakaera dutela pentsatzen duen hizkuntza-ideologia. Horren arabera, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailenduko lirateke, ahulena baztertuta.

- es** darwinismo lingüístico
- fr** darwinisme linguistique
- en** linguistic darwinism

23

hizkuntza-habitus (4)

Hiztunaren hizkuntza-portaera baldintzatzen duen aurretiazko joera-sistema.

- es** hábitus lingüístico
- fr** habitus linguistique
- en** linguistic habitus

24

hizkuntza-identitate (4)

Pertsona edo giza talde baten identitatearen eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen du bere identitatea.

- es** identidad lingüística
- fr** identité linguistique
- en** linguistic identity

25

hizkuntza-ideologia (4)

Pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistikoko jakin batzuen bidez adierazten da.

- es** ideología lingüística
- fr** idéologie linguistique
- en** linguistic ideology

26

hizkuntza-imperialismo (4)

Hizkuntza batek beste bat menderatzea eta, ondorioz, glotofagia bera justifikatzen eta bultzatzen dituzten iritzi eta portaeren multzoa.

- es** imperialismo lingüístico
- fr** impérialisme linguistique
- en** linguistic imperialism

27

hizkuntza-jarrera (4)

Hizkuntza, hizkuntza-barietate edo hiztun-talde jakin batekiko izaten den jarrera.

- es** actitud lingüística
- fr** attitude linguistique
- en** language attitude

28

hizkuntza-kontzientzia (4)

Norberaren hizkuntzari kultura-balio bereizgarria ematek eta hizkuntza horrek norberaren hizkuntza-komunitatea definitzen duela kontsideratzetik sortzen den motibazio arrazionala. Motibazio horren bidez, hizkuntzaren ezagutzari eustea eta ezagutza hori sakontzeko joera sustatzen da.

- es** conciencia lingüística
- fr** conscience linguistique
- en** linguistic consciousness

29

hizkuntza-leialtasun (4)

Sin. hizkuntza-atxikimendu (3)
Hiztun batek egoera guztietan bere hizkuntza erabiltzeko jarrera.

- es** lealtad lingüística
- fr** fidélité linguistique
- en** language loyalty

30

hizkuntza-liberalismo (4)

Hizkuntza-ukipeneko edo -gatazkako egoeretan inolako esku-hartzerik ez egitea babesten duen hizkuntza-ideologia.

- es** liberalismo lingüístico
- fr** libéralisme linguistique
- en** linguistic liberalism

31

hizkuntza-militantzia (4)

Hizkuntza-kontzientzia eta -leialtasuna sustatuz, hizkuntza baten aldeko ekin-tzak egiten dituen pertsonaren jarrera.

- es** militancia lingüística
- fr** militantisme linguistique
- en** linguistic militancy

32

hizkuntza-pluralismo (4)

Gizarte bateko hizkuntza-komunitateen berdintasuna, hots, erabiltzen diren hizkuntza guztiak eskubide berak dituztela aldarrikatzen duen ideologia.

- es** pluralismo lingüístico
- fr** pluralisme linguistique
- en** linguistic pluralism

33

hizkuntza-portaera (4)

Hiztunak egoera soziolinguistiko jakin batean egiten dituen aukera linguistikoak. Komunikazio-testuingurua, solaskidea eta interakzio-lekua zein den kontuan hartuz, hizkuntza jakin bat aukeratu du, hizkuntza-erregistro jakin bat, eta abar.

- es** comportamiento lingüístico
- fr** comportement linguistique
- en** linguistic behaviour

34

hizkuntza-prestigio (4)

Hizkuntzari gizartean ematen zaion balioa edo garrantzia.

- es** prestigio lingüístico
- fr** prestige linguistique
- en** linguistic prestige

hizkuntza-psikologia

Ik. psikolinguistika

35

hizkuntzaren funtzio sozial (4)

Hizkuntzak errealitatea eraikitzeko, komunikatzeko edo balio sinbolikoa bideratzeko dituen funtzioen multzoa.

- es** función social de la lengua
- fr** fonction sociale du langage
- en** social function of language

36

hiztun oso (4)

Hizkuntza-erabilera osoa, hots, gizarte-funtzio guztiak behar bezala betetzeko modukoa, eta hizkuntza-kontzientzia bizia dituen hitzuna.

- es** hablante pleno; hablante completo
- fr** paroleur complet
- en** full speaker

37

identitate etnolinguistiko (4)

Pertsona edo giza talde baten identitate etnokulturalaren eta hizkuntza baten artean dagoen lotura. Pertsona edo giza talde bakoitzak hizkuntza jakin batekin (edo gehiagorekin) lotzen ditu bere identitate etnikoa eta kulturala.

- es** identidad etnolingüística
- fr** identité ethnolinguistique
- en** ethnolinguistic identity

identitate sozial

Ik. gizarte-identitate

38

ideologia ekolinguistiko (4)

Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntzen arteko oreka gorde behar direla aldarrikatzen duen hizkuntza-ideologia.

- es** ideología ecolingüística
- fr** idéologie écolinguistique
- en** ecolinguistic ideology

39

inertzia (4)

Hizkuntza-barietate jakin bat erabiltzen edo hizkuntza-ideologia bat izaten jarraitzeko joera. Gizarteak sortzen eta bultzatzen du joera hori, eta erabilera eta ideologia aldatzea geldotu egiten du.

- es** inercia
- fr** inertie
- en** inertia

40

irrealitatearen diskurtso (4)

Hizkuntza-komunitate menderatu batek bere buruaren gain duen pertzepzio edo balorazio faltsua. Pertzepzio horren eraginez, indargabetu egiten da komunitate horretako hiztunek hizkuntza hori behar bezala lantzeko duten motibazioa, baita galdua dutenek hizkuntza berreskuratzeko motibazioa ere.

es discurso de la irrealidad

irudikapen sozial

Ik. gizarte-irudikapen

41

kultura-erlatibismo (4)

Kultura bakoitzak mundua bere erara ikusten duela eta kultura-adierazpen guztiak funtzio horretarako baliozkoak direla uste duen ideologia. Horren arabera, ezin da kulturen balorazio etiko edo moralik egin, bata bestea baino hobea dela esateko.

es relativismo cultural

fr relativisme culturel

en cultural relativism

42

legitimazio (4)

Hizkuntza-integrazioa gertatzeko, bertako hizkuntza ez dakienak hizkuntza horri buruz egin behar duen kontzientzia- edo ideologia-aldaketa. Hedabideak, eskolak, lan-munduak eta antzeko esparruak garrantzi handikoak dira hizkuntza baten legitimazioa bideratzeko.

es legitimación

fr légitimation

en legitimatation

43

lotura bikoitz (4)

Hizkuntza-komunitate batek bere izaera definitzeko beste komunitate baten beharra duenean gertatzen den paradoxa-egoera. Hizkuntza-komunitate menderatzailearen presioaren aurrean, komunitate horren aurka definitzen da hizkuntza-komunitate menderatua; izaera negatiboko definizioa da: ez da azpimarratzen komunitatea zer den, komunitatea zer ez den baizik (komunitate menderatzailea ez dena, alegia).

es doble atadura

fr double contrainte

en double bind

44

motibazio (4)

Pertsona bat portaera jakin bat izatera bultzatzen duen faktore edo eragingarria.

es motivación

fr motivation

en motivation

45

neutraltasun-estrategia (4)

Pertsona batek gatazkan dauden talde etniko edo linguistikoetako batekin identifika ez dezaten erabiltzen duen kode-aldaketa.

es estrategia de neutralidad

fr stratégie de neutralité

en strategy of neutrality

46

norberarenganako gorroto (4)

Sin. autogorroto (3)

Norberaren hizkuntza-ezaugarriak edo -portaerak ezkatatzeko jarrera.

Gizartean prestigio handiagoa duten portaera edo estereotipoekin bat etortzeko helburua izan ohi du jarrera horrek.

es autoodio

fr haine de soi; autodénigration

en self-hatred

47

osagarritasun-axiomak (4)

Hizkuntzaren existentzia eta hitzunen existentzia (hizkuntza erabiltzeko gai den pertsona gisa kontuan hartuta) bata bestearen mende daudela ezartzen duten axiomak.

es axiomas de complementariedad

48

pertzepzio (4)

Hizkuntzei buruz hitzunek duten ustea: zenbatak hitz egiten duen, baliagarria den, eta abar.

es percepción

fr perception

en perception

49

psikolinguistika (4)

Sin. hizkuntza-psikologia (3)

Hizkuntza-portaera eta -prozesuen alderdi psikologikoa aztertzen duen diziplina.

es psicolingüística; psicología del lenguaje

fr psycholinguistique; psychologie du langage

en psycholinguistics; psychology of language

psikologia sozial

Ik. gizarte-psikologia

50

psikosoziolinguistika (4)

Hizkuntza psikologia sozialaren esparruan aztertzen duen diziplina; hau da, hizkuntzarekin harremana duten azterketa psikosozialen arloa.

es psicossociolingüística

fr psychosociolinguistique

en psychosociolinguistics

purismo

Ik. garbizaletasun

51

Sapir-Whorf-en hipotesi (4)

Hitzunak errealitateaz duen pertzepzioa hizkuntza-egiturak determinatzen duela dioen teoria.

es hipótesis de Sapir-Whorf

fr hypothèse de Sapir-Whorf

en Sapir-Whorf hypothesis

52

segurtasun-falta linguistiko (4)

Erabiltzen duen hizkera eta zuzen edo egokitzen jotzen duena bat ez datozela uste izateak hitzunenengan sortzen duen sentimen edo jarrera. Sentimen horrek portaera jakin batzuk eragin ditzake gerora.

es inseguridad lingüística

fr insécurité linguistique

en linguistic insecurity

53

status (4)

Egitura sozial jakin batean, pertsona edo hizkuntza batek besteen aldean duen lekua edo posizioa.

es estatus

fr status

en status

54**trinkotze (4)**

Hizkuntza-komunitate bereko hiztunen artean interakzio linguistikoa indartzea, beste hizkuntza-komunitate batetik datozen kanpo-eraginak murrizteko.

es compactación

fr compactage

en compacting

2. IKASKUNTZA ETA HEZKUNTZA

55

alfabetatze (4)

Hizkuntza bat hitz egiten badakitenek hizkuntza horretan irakurtzen eta idazten gaitzeko irakaskuntza.

es alfabetización

fr alphabétisation

en literacy training

56

ama-hizkuntza (4)

Haurrak etxean gurasoengandik ikasita-ko lehen hizkuntza.

es lengua materna

fr langue maternelle

en mother tongue

57

berezko motibazio (4)

Sin. motibazio natural (3)

Hiztunak hizkuntza naturalki (haurra denean) ikasten eta erabiltzen duenean garatzen den motibazioa. Hizkuntza erabiltzeak hizkuntzaren pertzepzioa bideratzen du, eta pertzepzioak motibazioa.

es motivación natural

fr motivation naturelle

en natural motivation

58

bigarren hizkuntza (4)

Sin. H2 (4)

Lehen hizkuntzaren ondoren ikasten den hizkuntza. Euskaldun berrientzat euskara bigarren hizkuntza da.

es segunda lengua; L2

fr langue seconde; L2

en second language; L2

59

bigarren mailako elebakar (4)

Dakien hizkuntza bakarra, era natural-lean eskuratzeaz gain, berariazko ikaskuntza bidez ere landu duen pertsona.

es monolingüe secundario

fr monolingue secondaire

en secondary monolingual

60

bigarren mailako elebidun (4)

Bigarren hizkuntza era naturalean eskuratu ez duen elebiduna; hau da, bigarren hizkuntza ikaskuntza akademikoaren bitartez ikasi duena.

es bilingüe secundario

fr bilingue secondaire

en secondary bilingual

61

bigarren mailako ikaskuntza (4)

Hizkuntza berariaz ikasita egiten den ikaskuntza, hots, ikaskuntza akademiko edo eskolatua.

es aprendizaje secundario

fr apprentissage secondaire

en secondary learning

62

euskalduntze (4)

Euskaraz ez dakienak euskara ikasteko prozesua.

es euskaldunización

fr basquisation

en basquisation

H1

Ik. lehen hizkuntza

H2

Ik. bigarren hizkuntza

hizkuntza eskuratzeko

Ik. hizkuntzaz jabetze

63**hizkuntza ikaste (4)**

Pertsona edo kolektibo batek hizkuntza bat bere egitea, hizkuntza hori erabilteko moduan.

- es** aprendizaje de una lengua
- fr** apprentissage d'une langue
- en** language learning

64**hizkuntza-kontrol (4)**

Agintaritzak hizkuntza baten erabilera-arauak eta hizkuntza-portaerak kontrolatzea. Kontrol horren bitartez, hiztunek nolabait bete beharko duten ordena soziolinguistikoa ezartzen da.

- es** control lingüístico
- fr** contrôle linguistique
- en** language control

65**hizkuntzaz jabetze (4)**

Sin. hizkuntza eskuratzeko (3)
Norbaitek hizkuntza bat ikastea eta bere egitea.

- es** adquisición de una lengua
- fr** acquisition d'une langue
- en** language acquisition

66**irakaskuntza elebarkar (4)**

Irakaskuntzako komunikazio-hizkuntza gisa hizkuntza bakarra erabiltzen duen irakaskuntza.

- es** enseñanza monolingüe
- fr** enseignement monolingue
- en** monolingual teaching

67**irakaskuntza elebidun (4)**

Irakaskuntzako komunikazio-hizkuntza gisa bi hizkuntza erabiltzen dituen irakaskuntza.

- es** enseñanza bilingüe
- fr** enseignement bilingue
- en** bilingual teaching

irakaskuntzako hizkuntza-eredu

Ik. irakasteredu

68**irakasteredu (4)**

Sin. irakaskuntzako hizkuntza-eredu (3)
Irakaskuntzan erabiltzen diren komunikazio-hizkuntzen arabera bereizketa ezartzen duten ereduak bakoitza.

OHARRA: Adibidez, EAEko irakastereduak dira A eredua (gaztelania da komunikazio-hizkuntza eta euskara ikasgai gisa eskaintzen da), B eredua (gaztelania eta euskara, biak, dira komunikazio-hizkuntzak), eta D eredua (euskara da komunikazio-hizkuntza eta gaztelania ikasgai gisa eskaintzen da).

- es** modelo lingüístico de enseñanza
- fr** modèle linguistique d'enseignement
- en** educational linguistic model

jakitezko motibazio

Ik. motibazio kultural

69**komunikazio-hizkuntza (4)**

Informazio edo zerbitzu bat eskaintzean, komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza; bereziki, irakaskuntzan jakintza transmititzeko irakasle eta ikasleek erabiltzen duten hizkuntza.

- es** lengua vehicular
- fr** langue véhiculaire
- en** everyday language

70

lehen hizkuntza (4)

Sin. H1 (4)

Haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitu dena.

es primera lengua; L1

fr première langue; L1

en first language; L1

71

lehen mailako elebakar (4)

Dakien hizkuntza bakarra era naturalen bakarrik ikasi duen pertsona. Hau da, ez du ikaskuntza akademiko bidez landu.

es monolingüe primario

fr monolingue primaire

en primary monolingual

72

lehen mailako elebidun (4)

Bi hizkuntzak naturalki ikasi dituen elebiduna; hau da, ikaskuntza akademiakoaren aurretik bi hizkuntzak erabiltzen zituen.

es bilingüe primario

fr bilingue primaire

en primary bilingual

73

lehen mailako ikaskuntza (4)

Hizkuntza bat ikastea, hiztuna hizkuntza horretaz zuzenean eta naturalki inguratuta dagoen ingurunean. Adibidez, haurrek lehen hizkuntza ikasten dutenean gertatzen da ikaskuntza-mota hori.

es aprendizaje primario; aprendizaje natural

fr apprentissage primaire

en primary learning

74

motibazio instrumental (4)

Ikasleak hizkuntza ikasteko duen motibazio utilitario edo praktikoa, hizkuntza bera ikastean baino gehiago hizkuntza ikasiz gero beste helbururen bat lortzeko itxaropenean oinarritua (lana lortzeko itxaropenean, adibidez).

es motivación instrumental

fr motivation instrumentale

en instrumental motivation

75

motibazio integratzaile (4)

Hizkuntza bera ikasteko edo hizkuntza hori hitz egiten duen komunitatean integratzeko motibazioa.

es motivación integrativa

fr motivation intégrative

en integrative motivation

76

motibazio kultural (4)

Sin. jakitezko motibazio (3)

Hizkuntza bat ikasi aurretik, hizkuntza horri buruz izaten den motibazioa. Motibazio hori da hizkuntza behar bezala hautemateko, ikasteko eta erabiltzeko abiapuntua.

es motivación cultural

fr motivation culturelle

en cultural motivation

motibazio natural

Ik. berezko motibazio

77

murgiltze-programa (4)

Haur elebakarra beste hizkuntza bat komunikazio-tresna modura erabiltzen duen eskola batean sartzean duen hezkuntza-programa. Haurrak egun osoz bigarren hizkuntzan lan egiten duenean murgilketa osoa izango da; bestela, partziala.

- es** programa de inmersión
fr programme d'immersion
en immersion program

78

nahikotasun-maila (4)

Hizkuntza bat eskuratzean, hizkuntza hori behar bezala erabiltzeko nahikoa den ezagutza-maila.

- es** nivel de suficiencia
fr niveau de suffisance
en level of adequacy

3. BARIAZIOA ETA BARIETATEAK

79

akrolekto (4)

Goi-mailako hizkuntza-barietatea; bereziki, goi-mailako klase soziokulturalena.

es acrolecto

fr acrolecte

en acrolect

bariazio diafasiko

Ik. bariazio funtzional

80

bariazio dialektal (4)

Hizkuntza batek dituen dialektoen multzoa.

es variación dialectal

fr variation dialectale

en dialectal variation

bariazio diastratiko

Ik. bariazio sozial

bariazio diatopiko

Ik. bariazio geografiko

bariazio estilistiko

Ik. bariazio funtzional

81

bariazio funtzional (4)

Sin. bariazio diafasiko (3); bariazio estilistiko (3)

Hizkuntzak gizartean dituen funtzioen eta testuinguruen arabera erabiltzen diren hizkuntza-barietateen multzoa.

es variación estilística; variación diafásica; variación funcional

fr variation fonctionnelle; variation stylistique; variation diaphasique

en stylistic variation; diaphasic variation

82

bariazio geografiko (4)

Sin. bariazio diatopiko (3)

Hizkuntza bateko lurraldeen arabera bereizten diren hizkuntza-barietateen multzoa.

es variación geográfica; variación diatópica

fr variation géographique; variation diatopique

en geographic variation; diatopic variation

83

bariazio sozial (4)

Sin. bariazio diastratiko (3)

Hizkuntza batean gizarte-taldeen arabera erabiltzen diren hizkuntza-barietateen multzoa.

es variación social; variación diastrática

fr variation sociale; variation diastratique

en social class variation; diastratic variation

84

barietate geografiko (4)

Hizkuntza bateko lurraldeen arabera bereizten diren hizkuntza-barietateetako bakoitza.

es variedad geográfica

fr variété géographique

en geographical variety

85

basilekto (4)

Behe-mailako hizkuntza-barietatea; bereziki, maila apaleko klase soziokulturalena.

- es** basilecto
fr basilecte
en basilect

86

denborazko bariazio (4)

Hizkuntza batean garaiaren arabera bereizten diren forma linguistiko edo hizkuntza-barietateen multzoa.

- es** variación temporal
fr variation temporelle
en temporal variation

87

dialektalizazio (4)

Hizkuntza bat dialekto gero eta desberdinaoetan bereizteko prozesua.

- es** dialectalización
fr dialectalisation
en dialectalization

88

dialekto (4)

Lurralde mugatu batean hitz egiten den hizkuntza-barietatea, sistema linguistikoan ezaugarri bereziak dituena.

- es** dialecto
fr dialecte
en dialect

89

dialekto-konbergentzia (4)

Hizkuntza bateko dialektoen arteko desberdintasuna murriztea.

- es** convergencia dialectal
fr convergence dialectale
en dialectal convergence

90

dialektologia (4)

Dialektoak eta bestelako hizkuntza-barietate geografikoak aztertzen dituen diziplina linguistikoa.

- es** dialectología
fr dialectologie
en dialectology

91

erregistro (4)

Solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien, formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren arabera erabiltzen diren hizkuntza-barietateetako bakoitza.

- es** registro
fr registre
en register

estandar

Ik. hizkuntza estandar

92

etnolekto (4)

Talde etniko jakin batek erabiltzen duen hizkuntza-barietatea.

- es** etnolecto
fr ethnolecte
en ethnolect

93

euskalki (4)

Euskararen dialektoetako bakoitza.

- es** dialecto del euskera
fr dialecte basque
en basque dialect; dialect of basque

94

euskara batu (4)

Euskararen barietate estandarra, euskalkietako hainbat elementu bateratuz Euskaltzaindiak proposatu eta arautua.

- es** euskera unificado
fr basque unifié
en unified basque

95

hizkuntza estandar (4)

Sin. estandar (4)

Estandarizazio bidez erabilera orokorre-rako finkatu den hizkuntza-barietatea. Hizkuntza-komunitateko hitzun guz-tientzat barietate jaso da, eta literatu-ran, hedabideetan eta hezkuntzan era-biltzen da bereziki. Euskararen kasuan, euskara batua da.

- es** lengua estándar; estándar
- fr** langue standard; standard
- en** standard language; standard

96

hizkuntza-aldaera (4)

Hizkuntza-aldagai bat gauzatzen den moduetako bakoitza. Adibidez, kasu soziatiboa -kin, -kila edo -gaz aldaere-tan gauza daiteke.

- es** variante lingüística
- fr** variante linguistique
- en** linguistic variant

97

hizkuntza-aldagai (4)

Era desberdin eta alternatiboetan gauza daitekeen ezaugarri edo elementu lin-guistikoa (fonema, morfema, hitza eta abar).

OHARRA: Gauzatzen denean aldaera bat sortuko du; adibidez, kasu soziati-boa (aldagaia) hainbat modutara (hain-bat aldaeratan) gauza daiteke: -kin, -kila, -gaz.

- es** variable lingüística
- fr** variable linguistique
- en** linguistic variable

98

hizkuntza-bariazio (4)

Hizkuntza baten barnean erabiltzen diren hizkuntza-barietateen multzoa.

- es** variación lingüística
- fr** variation linguistique
- en** linguistic variation

99

hizkuntza-barietate (4)

Giza talde bati edo ekoizpen linguisti-koko testuinguru bati lotutako sistema linguistikoa. Hizkuntza-barietateak dira, alde batetik, hizkuntzak, eta bes-tetik, hizkuntza baten barruan lurralde, funtzio, gizarte-talde eta abarren arabe-ra bereizten diren sistemak.

- es** variedad lingüística
- fr** variété linguistique
- en** linguistic variety

100

hizkuntza-distantzia (4)

Bi hizkuntzaren ezaugarri linguistikoen artean dagoen antzekotasuna.

Distantzia txikiagoa izango da familia bereko bi hizkuntzaren artean (adibi-dez, gaztelaniaren eta galegoaren artean), familia desberdineko beste bi hizkuntzaren artean baino (gaztelania-ren eta euskararen artean baino).

- es** distancia lingüística
- fr** distance linguistique
- en** interlingual distance

101

hizkuntza-kode (4)

Hizkuntza bateko zeinu eta arau lin-guistikoen sistema, hitzunek komuni-katzeko erabil dezaketena.

- es** código lingüístico
- fr** code linguistique
- en** linguistic code

102

idiolekto (4)

Pertsona batek, eta pertsona horrek bakarrik, erabiltzen duen hizkera edo hizkuntza-barietatea.

- es** idiolecto
- fr** idiolecte
- en** idiolect

103

kobariazio (4)

Hizkuntza-egituran edo hizkuntza-barietateetan gertatzen diren aldaketen eta gizarte-egituran gertatzen direnen artean dagoen erlazioa.

- es** covariación
fr covariation
en covariation

104

kode landu (4)

Hizkuntza-arauak ondo betetzen dituen soziolektoa, aberastasun lexiko eta morfositaktiko handikoa.

- es** código elaborado
fr code élaboré
en elaborated code

105

kode murriztu (4)

Hizkuntza-arauak ondo betetzen ez dituen soziolektoa, aberastasun lexiko eta morfositaktiko urrikoa.

- es** código restringido
fr code restreint
en restricted code

106

mesolekto (4)

Akrolektoaren eta basilektoaren artean dagoen tarteko hizkuntza-barietatea.

- es** mesolecto
fr mésolecte
en mesolect

107

mugako barietate (4)

Bi hizkuntzaren artean luzaroan harremana izan den muga-lurraldeetan sortzen den hizkuntza-barietatea.

- es** variedad de frontera
fr variété de frontière
en border variety

108

paraestandar (4)

Hizkuntza beraren barietate estandar bat baino gehiago finkatzen direnean, estandar horietako bakoitza. Lurraldeko eskualde batean dialekto batzuen estandarrek finkatu direlako (adibidez, bizkaiera estandarra, euskararen kasuan) edo lurralde desberdinetan estandarizazio-prozesu autonomoak egin direlako (adibidez, Erresuma Batuko eta Ipar Amerikako ingeles estandarrek) sortzen dira paraestandarrek.

- es** paraestándar
fr parastandard
en parastandard

109

pidgin (4)

Hizkuntza-komunitate desberdineko kideek elkar ulertzeko eratzen duten hizkuntza-barietate nahasia. Egitura sinplifikatua izan ohi du, eta komunikazio mugatua eskaintzen du.

- es** pidgin
fr pidgin
en pidgin

110

soziolekto (4)

Gizarte-talde jakin batek erabiltzen duen hizkuntza-barietate berezia.

- es** sociolecto
fr sociolecte
en sociolect

111

teknolekto (4)

Jakintza edo jarduerar-erlode batean erabiltzen den hizkera berezia. Zientzia edo lanbide jakin batzuetan, adibidez, ezaugarri linguistiko bereziko hizkuntza erabiltzen da.

- es** tecnolecto
fr technolecte
en technolect

112

trantsizioko barietate (4)

Enklabe edo lurralde bereizi batean garatu den hizkuntza-barietatea, alboan dituen beste bi hizkuntzaren elementuez osatua.

es variedad de transición

fr variété de transition

en transition variety

4. ESTANDARIZAZIOA, PLANIFIKAZIOA ETA NORMALIZAZIOA

113

elaborazio (4)

Sin. lantze (3)

Hizkuntzaren barietate estandar arautua eguneratzea, aberastea eta komunikazio-funtzio guztietarako baliagarri egitea. Estandarizazioaren azken fasea da.

es elaboración**fr** élaboration**en** elaboration

114

eredu eleaniztun (4)

Hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, hizkuntza-komunitate guztiak ia modu bertsuan kontuan hartzen dituen hizkuntza-politikaren eredua.

es modelo plurilingüista**fr** modèle plurilingue**en** plurilinguistic model

115

eredu elebakar (4)

Hizkuntza-aniztasuna aintzat hartu gabe, lurralde osoan hizkuntza nagusi bakarra ezarri nahi duen hizkuntza-politikaren eredua.

es modelo monolingüista**fr** modèle monolingue**en** monolinguistic model

116

estandarizazio (4)

Hizkuntza baten barietate estandarra zehazteko, ezartzeko eta lantzeko helburua duen prozesu linguistiko eta soziala. Lau fase ditu: hautatzea, kodeatzea, inplementazioa eta elaborazioa.

es estandarización**fr** standardisation**en** standardization

117

estandarizazio formal (4)

Formalki programatutako prozesu baten bitartez egiten den estandarizazioa.

es estandarización formal**fr** standardisation formelle**en** formal standardization

118

estortsio-paradigma (4)

Hizkuntza-ordezkapena bultzatzen duen hizkuntza-politika baten ondoriozko prozesu-eredua. Lehen hizkuntzako hiztun elebakarra bigarren hizkuntzako elebakar bihurtzen da.

es paradigma de extorsión**fr** paradigme d'extorsion**en** extortion paradigm

119

etoglosia (4)

Hizkuntzaren normalizazio-maila, gizarte-funtzioak betetzeko hizkuntzak dituen gaitasuna eta erraztasuna neuritzen dituen.

OHARRA: Hizkuntza gutxituek etoglosia handia behar dute bizirik irauteko.

es etoglosia**fr** ethoglossie**en** ethoglossia

120

grafizazio (4)

Hizkuntzaren ortografia-arauak finkatzea. Kodezaren hiru ataletako bat da.

es grafización**fr** graphisation**en** graphitization

121

gramatikalizazio (4)

Hizkuntzaren arau morfologiko eta sintaktikoak finkatzea. Kodetzearen hiru ataletako bat da.

- es** gramaticalización
- fr** grammaticalisation
- en** grammaticalization

122

hautatze (4)

Hizkuntza bat estandarizatzeko lehen fasea; hizkuntza-barietate edo barietate multzo jakin bat estandarizazioa egiteko oinarri gisa hobestean datza.

- es** selección
- fr** sélection
- en** selection

123

hizkuntza normalizatu (4)

Gizarteko esparru eta funtzio publiko eta pribatu guztietara zabaldu den hizkuntza. Bereziki, egoera hori normalizazio-prozesu baten ondorioz lortu duena.

- es** lengua normalizada
- fr** langue normalisée
- en** normalized language

124

hizkuntza-kontraplantingintza (4)

Hizkuntza-plangintza baten eraginak moteltzeko edo eragin horien aurka egiteko ekintzen multzoa. Hizkuntza menderatzailearen nagusigoari eustea izan ohi da ekintza horien helburua.

- es** contraplanificación lingüística
- fr** contre-planification linguistique
- en** language counterplanning

125

hizkuntza-normalizazio (4)

Minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua.

- es** normalización lingüística
- fr** normalisation linguistique
- en** linguistic normalization

126

hizkuntza-plangintza (4)

Hizkuntza-politika aurrera eramateko planifikatzen diren programen eta proiektuen multzoa.

- es** planificación lingüística
- fr** planification linguistique; aménagement linguistique
- en** language planning

127

hizkuntza-politika (4)

Erakunde publikoek hizkuntzen erabilerara antolatze eta arautze egiten dituzten esku-hartzeen multzoa.

- es** política lingüística
- fr** politique linguistique
- en** language policy

128

implementazio (4)

Hizkuntzaren barietate estandarra hezkuntza-sistemaren bidez biztanlerian hedatzea eta komunikazio formalaren esparrura eramatea.

Estandarizazioaren faseetako bat da.

- es** implementación
- fr** implémentation
- en** implementation

129

implementazio-paradigma (4)

Hizkuntza ofizialeko hiztun elebakar osoak hizkuntza gutxitua ikasiz elebidun bihurtzen dituen prozesu-eredua. Hizkuntza-politika horien bidez, normalizazioa ez da guztizkoa, hizkuntza nagusiko hiztun oso izatea izango baita hiztun horien lehen ezaugarria.

- es** paradigma de implementación
fr paradigme d'implémentation
en implementation paradigm

130

kodetze (4)

Hizkuntzaren barietate estandarra finkatzeko arauak ezartzen dituen estandarizazio-fasea. Lexikalizazioa, grafiazioa eta gramatikalizazioa hartzen ditu barnean.

- es** codificación
fr codification
en encoding

131

kontrol-eredu (4)

Hizkuntza-aniztasuna hein batean errespetatzen badu ere, hizkuntza-komunitate nagusiaren aldeko joera duen hizkuntza-politikak aplikatzen duen eredua.

- es** modelo de control
fr modèle de contrôle
en control model

lantze

Ik. elaborazio

132

lexikalizazio (4)

Hizkuntzaren ondare lexikoa finkatzea eta hitz bakoitzaren adiera zehatza bereiztea. Kodetzearen hiru ataletako bat da.

- es** lexicalización
fr lexicalisation
en lexicalization

133

lurraldetasun-printzipio (4)

Lurralde-bereizketa egiten duen hizkuntza-politikaren oinarritzko printzipioa. Bereizketa horren arabera, lurralde batuetan bakarrik bermatuko da zerbitzuak hizkuntza jakin batean eskaintzea.

- es** principio de territorialidad
fr principe de territorialité
en principle of territoriality

134

normatibizazio (4)

Hizkuntza komunikazio-tresna egokia izan dadin, hizkuntza-arau batzuk ezartzen dituen prozesua. Ortografiak, gramatika arauemaileak eta hiztegi arauemaileak osatuko lukete arau-multzorori.

- es** normativización
fr normativisation
en normativization

135

optimizazio-paradigma (4)

Hizkuntza gutxitu batek estatu hedakor baten eraginez galdu dituen hiztun guztiak berreskuratzeko prozesu-eredua. Hizkuntza-politika horren bitartez, hizkuntza-komunitatearen lurraldeko hiztun guztiak eskuratuko edo berreskuratuko dute hizkuntza.

- es** paradigma de optimización
fr paradigme d'optimisation
en optimization paradigm

136

pertsonaltasun-printzipio (4)

Lurralde-bereizketariki egin gabe, pertsonari zerbitzuak bere hizkuntzan eskaintzea bermatzen duen hizkuntza-politikaren oinarritzko printzipioa.

- es** principio de personalidad
fr principe de personnalité
en principle of personality

137

positibizazio-paradigma (4)

Hizkuntza gutxitua lehen hizkuntzatzat ez dutenen artean hizkuntza hori ikas-teko motibazio kulturala zabaltzeko prozesua. Paradigma honi optimizazio-paradigma gehituz lortuko litzateke normalizazio osoa.

es paradigma de positivización

fr paradigme de positivisation

en positivization paradigm

5. GIZARTE-ARLOA ETA ANTROPOLOGIA

arau sozialak

Ik. gizarte-arauak

138

erabilera-arauak (4)

Hiztunen hizkuntza-erabilera arautzen duten gizarte-arau bereziak. Erabilera-eremu jakin batean erabili beharreko hizkuntza, barietatea edo erregistroa zehazten dute.

- es** normas de uso
- fr** normes d'usage
- en** usage norms

139

etnizitate (4)

Herri edo etnia batek berezkoak dituen ohitura, balio eta portaeren multzoa.

- es** etnicidad
- fr** ethnicité
- en** ethnicity

140

etnolingüistika (4)

Hizkuntzaren eta testuinguru etniko eta kulturalaren arteko harremana aztertzen duen zientzia.

- es** etnolingüística
- fr** ethnolinguistique
- en** ethnolinguistics

141

gizarte-arauak (4)

Sin. arau sozialak (3)

Gizarteak onetsitako jokabide-pautak, kulturalaki eskuratzen direnak. Kideen portaera individual edo kolektiboa baldintzatzen eta arautzen dute, eta, joko-arau gisa, ezinbestekoak dira bizikidetzarako.

- es** normas sociales
- fr** normes sociales
- en** social norms

142

gizarte-imitazio (4)

Sin. imitazio sozial (3)

Maila apalenerako gizarte-klaseek goimailakoen portaerak imitatzeko joera edo prozesu soziala.

- es** imitación social
- fr** imitation sociale
- en** social emulation

143

gizartearen hizkuntza-funtzio (4)

Hizkuntza-egiturak zehazteko eta barrietateak definitzeko faktore diren prozesu sozialen multzoa.

- es** función lingüística de la sociedad
- fr** fonction linguistique de la société
- en** linguistic function of society

144

hizkuntza-antropologia (4)

Hizkuntzaren eta sistema soziokulturalaren arteko harremanak aztertzen dituen diziplina.

- es** antropología lingüística
- fr** anthropologie linguistique
- en** linguistic anthropology

145

hizkuntza-botere (4)

Giza talde batek hizkuntza-gaietan agintzeko edo erabakitzeko duen ahalmena.

- es** poder lingüístico
- fr** pouvoir linguistique
- en** linguistic power

146

hizkuntza-diskriminazio (4)

Pertsona batek erabiltzen duen hizkuntzaren arabera egiten den diskriminazioa; hots, hizkuntza jakin bat erabiltzeagatik pertsona horri eskubide edo zerbitzu publiko nahiz pribatu bat eskuratzeko aukera ukatzea.

- es** discriminación lingüística
- fr** discrimination linguistique
- en** linguistic discrimination

147

hizkuntza-kapital (4)

Pertsona batek hizkuntza-merkatuan eta, oro har, gizartean lehiatzeko baliabide gisa erabil ditzakeen ezagutza linguistikoa eta komunikazio-gaitasunen multzoa.

- es** capital lingüístico
- fr** capital linguistique
- en** linguistic capital

148

hizkuntza-komunitate (4)

Lehen hizkuntza bera duten edo hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa. Soziolinguistikak aztertzen duen unitate sozial nagusia da.

- es** comunidad lingüística
- fr** communauté linguistique
- en** linguistic community

imitazio sozial

Ik. gizarte-imitazio

149

interkulturalismo (4)

Lurralde berean identitate eta ezaugarri kultural desberdinetako gizataldeak interakzioan aritzea, integrazioa sustatuz, bideratzen duen politika-eredua.

- es** interculturalismo
- fr** interculturalisme

150

komunikazioaren etnografia (4)

Hizkuntza bidezko komunikazioak kulturarekin eta gizartearekin dauzkan harremanak aztertzen dituen etnografiaren atala.

- es** etnografía de la comunicación
- fr** ethnographie de la communication
- en** ethnography of communication

151

kultura-aniztasun (4)

Lurralde berean identitate eta ezaugarri kultural desberdinetako gizataldeak izatea.

- es** multiculturalidad
- fr** multiculturalité
- en** multiculturality

152

kultura-artekotasun (4)

Lurralde berean identitate eta ezaugarri kultural desberdinetako gizataldeak interakzioan aritzea, integrazioa sustatuz.

- es** interculturalidad
- fr** interculturalité

153

kultura-bitasun (4)

Pertsona batek bi gizarte-talde edo hizkuntza-komunitateren hizkuntzak, ohiturak, balioak eta arau konbentzionalak ezagutzea eta bere egitea.

OHARRA: Ez da elebitasunarekin nahastu behar: pertsona izan daiteke gai bi hizkuntzatan mintzatzeko, jatorriz berea ez den hizkuntza-komunitatearen kultura-ezaugarriak ezagutu gabe.

- es** biculturalismo
- fr** biculturalisme
- en** biculturalism

154

migrazioak (4)

Hainbat pertsona edo giza talde herrialde batetik bestera lekualdatzea, lan bila edo bestelako arrazoi sozioekonomiko batengatik.

OHARRA: Migrazioen eraginez hizkuntza-komunitate berriak agertzean, gerta liteke lurralde bateko hizkuntza-gatazka-ren ezaugarriak aldatzea edo, are gehiago, ezohiko ezaugarriak gehitzea.

es migraciones

fr migrations

en migrations

155

multikulturalismo (4)

Lurralde berean identitate eta ezaugarri kultural desberdinetako gizataldeak, bakoitzak bere ezaugarriak izanez, elkarrekin bizitzea bideratzen duen politika-eredua.

es multiculturalismo

fr multiculturalisme

en multiculturalism

156

sozializazio (4)

Pertsona (haurra, bereziki), inguruneko gizarte eta kulturaren balio, arau eta jokabideak eskuratuz, bizitza sozialera egokitzea eta gizarte horretako kide bihurtzea.

es socialización

fr socialisation

en socialization

6. HIZKUNTZA-UKIPENA ETA HIZKUNTZA-GATAZKA

6.1 Prozesuak eta fenomenoak

157

akulturazio (4)

Kultura batek bere jatorrizko ezaugarriak galtzeko prozesua, aldi berean beste kultura batenak hartuz.

es aculturación

fr acculturation

en acculturation

158

banako elebitasun (4)

Sin. elebitasun indibidual (3)

Gizabanako batek bi hizkuntza erabiltzea.

es bilingüismo individual

fr bilinguisme individuel

en individual bilingualism

barne-diglosia

Ik. endodiglosia

159

diglosia (4)

Ukipen-egoeran dauden bi hizkuntza edo hizkuntza-barietateren arteko mendekotasun-egoera: hizkuntza edo barietate horiek funtzio desberdinetarako erabiltzen dira; bata funtzio formaletarako (administrazioa, hezkuntza, hedabideak) eta bestea informaletarako (familia, lagunartea).

es diglosia

fr diglossie

en diglossia

160

diglosia partzial (4)

Hizkuntza batek beste hizkuntzaren funtzio eta erabilera formalak hizkuntza honen lurraldearen zati batean bakarrik bereganatzen dituzenean gertatzen den diglosia.

es diglosia parcial

fr diglossie partielle

en partial diglossia

161

ele-parekotasun (4)

Eguneroko jarduera-arlo guztietan hizkuntza batean zein bestean funtzionaltasun osoz eta inolako interferentziarik gabe, elebakar modura, jarduteko mailako elebitasuna.

es ambilingüismo

fr ambilinguisme

en ambilingualism

162

eleaniztasun (4)

Hiztun edo giza talde batek hiru hizkuntza edo gehiago jakin eta erabiltzea.

es multilingüismo; plurilingüismo

fr plurilinguisme; multilinguisme

en multilingualism; plurilingualism

163

elebakar (4)

Hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzen duen hiztun edo giza taldea.

es monolingüe

fr monolingue

en unilingual

164

elebakartasun (4)

Hiztun edo giza talde batek hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzea.

- es** monolingüismo
- fr** monolingüisme
- en** monolingualism

165

elebidun (4)

Bi hizkuntza jakin eta erabiltzen dituen hiztun edo giza taldea.

- es** bilingüe
- fr** bilingue
- en** bilingual speaker

166

elebitasun (4)

Hiztun batek edo gizatalde batek bi hizkuntza jakin eta erabiltzea.

- es** bilingüismo
- fr** bilinguisme
- en** bilingualism

elebitasun aldebakar

Ik. noranzko bakarreko elebitasun

167

elebitasun asimetriko (4)

Hiztunak bi hizkuntzen ezagutza-maila berbera ez duenean gertatzen den elebitasuna.

- es** bilingüismo asimétrico
- fr** bilinguisme asymétrique
- en** asymmetrical bilingualism

168

elebitasun diglosiko (4)

Bi hizkuntza ukipenean daudenean gertatu ohi den elebitasun desorekatua: bi hizkuntzetatik bat -hizkuntza gutxitua- maila pribatu eta xeheetan erabiltzen da, eta bestea -hizkuntza menderatzailea- gainerako erabilera publiko eta jasoagoetan.

- es** bilingüismo diglósico
- fr** bilinguisme diglossique
- en** diglossic bilingualism

169

elebitasun gehigarri (4)

Hiztunak bigarren hizkuntza ikastean, lehendik zekien hizkuntzaren galerarik ez dakarren elebitasuna. Hiztunaren motibazioa eta gaitasuna hobetu egiten dira bi hizkuntzetan.

- es** bilingüismo aditivo
- fr** bilinguisme à effet positif
- en** additive bilingualism

elebitasun indibidual

Ik. banako elebitasun

170

elebitasun instrumental (4)

Arrazoi praktikoen ondoriozko elebitasuna: onura edo abantaila praktikoak lortzeko ikasten da bigarren hizkuntza.

- es** bilingüismo instrumental
- fr** bilinguisme instrumental
- en** instrumental bilingualism

171

elebitasun integratzaile (4)

Integrazio-motibazioen ondoriozko elebitasuna: hizkuntza-komunitate bateko kide bihurtzeko asmoaz ikasten da bigarren hizkuntza.

- es** bilingüismo integrativo
- fr** bilinguisme intégratif
- en** integrative bilingualism

172

elebitasun kengarri (4)

Hiztunak bigarren hizkuntza ikastean, lehendik zekien hizkuntzaren galera dakarren elebitasuna. Lehen hizkuntza-reekiko motibazioa apaldu egiten da, eta bigarren hizkuntzak lehena ordezkatzeara gerta daiteke.

- es** bilingüismo sustractivo
- fr** bilinguisme à effet négatif
- en** subtractive bilingualism

173

elebitasun ordezkatzaille (4)

Hizkuntza-ordezkapeneko prozesueta-ko elebitasuna.

- es bilingüismo sustitutivo
- fr bilinguisme de substitution
- en substitutory bilingualism

174

elebitasun simetriko (4)

Hiztunak bi hizkuntzen ezagutza-maila berbera duenean gertatzen den elebitasuna.

- es bilingüismo simétrico
- fr bilinguisme symétrique
- en symmetrical bilingualism

elebitasun sozial

Ik. gizarte-elebitasun

175

endodiglosia (4)

Sin. barne-diglosia (4)

Hizkuntza bereko bi barietateren artean gertatzen den diglosia.

OHARRA: Adibide ezaguna da Magrebeko herrialde batzuetan arabiera klasikoak eta bertako arabierak bizi duten diglosia-egoera.

- es endodiglosia; diglosia interna
- fr endodiglossie; diglossie interne
- en endodiglossia; internal diglossia

176

erabateko diglosia (4)

Hizkuntza batek beste hizkuntzaren funtzio edo erabilera formalak ez ezik azken honen lurralde osoa bereganatzen duenean gertatzen den diglosia.

OHARRA: Euskarari, katalanari edo bretoierari gertatu zaiena har daiteke adibide gisa.

- es diglosia total
- fr diglossie totale
- en total diglossia

177

etete-tentsio (4)

Hizkuntza gutxitu baten mendekotasun-egoera eta gutxitze-prozesua eten eta atzera oreka berreskuratzen hasten den uneko egoera.

- es tensión de ruptura
- fr tension de rupture
- en breaking strain

178

exodiglosia (4)

Hizkuntza desberdinen artean gertatzen den diglosia. Barnean hartzen ditu diglosia partziala eta erabatekoa.

- es exodiglosia
- fr exodiglossie
- en exodiglossia

179

gizarte-elebitasun (4)

Sin. elebitasun sozial (3)

Gizarte edo giza talde batek bi hizkuntza erabiltzea.

OHARRA: hori, sarritan, ez da gertatzen hizkuntza-komunitate bat berez elebiduna delako, bi hizkuntza-komunitate desberdin daudelako baizik.

- es bilingüismo social
- fr bilinguisme social
- en social bilingualism

180

glotofagia (4)

Hizkuntza menderatzaileak egindako presioaren eraginez hizkuntza menderatua desagertzeraino iristen den prozesua. Batak bestea irentsi egiten duelako deitzen zaio horrela.

- es glotofagia
- fr glottophagie
- en glottophagy

181

gutxitze (4)

Sin. minorizazio (3)

Hizkuntza menderatzaile baten eraginez hainbat erabilera-esparru eta funtzio galduz doan hizkuntzak bizi duen prozesua.

es minorización

fr minorisation

en minorization

182

hirueletasun (4)

Hiztun edo giza talde batek hiru hizkuntza jakin eta erabiltzea.

es trilingüismo

fr trilinguisme

en trilingualism

183

hizkuntza indarberritze (4)

Funtzioak eta erabilgarritasuna galduz doan hizkuntza batek hizkuntza-ordezkapeneranzko joera hori etetea eta egoera iraultzea.

es inversión del desplazamiento lingüístico

fr inversion du transfert linguistique

en reversing language shift

184

hizkuntza ugaltze (4)

Hizkuntza-komunitate bateko kideek ondorengo belaunaldiei beren hizkuntza transmititzea.

es reproducción de la lengua

fr reproduction de la langue

en language reproduction

185

hizkuntza-aniztasun (4)

Eremu jakin batean, hainbat hizkuntza desberdin hitz egitea.

OHARRA: Munduan, hizkuntzak galdu ahala, hizkuntza-aniztasuna murriztuz doa.

es diversidad lingüística

fr diversité linguistique

en linguistic diversity

186

hizkuntza-asimilazio (4)

1. Etorकिनak bere jatorrizko hizkuntza utzi eta bertako hizkuntza eskuratzeko egiten duen moldatze-prozesua. 2.

Hizkuntza-ordezkapena.

es asimilación lingüística

fr assimilation linguistique

en linguistic assimilation

187

hizkuntza-bilakaera (4)

Sin. hizkuntza-mugikortasun (3)

Hiztunak, lehen hizkuntzatik hasita, gerora ikasi edo erabiltzen dituen hizkuntzen arabera izan duen bilakaera.

Ahaztu, ikasi edo erabiltzen dituen hizkuntzak zein diren hartzen da kontuan, baita hizkuntza horien ikaskuntza-maila eta erabilera nolakoak diren ere.

es movilidad lingüística

fr mobilité linguistique

en linguistic mobility

188

hizkuntza-galera (4)

Giza talde batean, hizkuntza baten ezagutzak atzera egitea denboran zehar.

es pérdida lingüística

fr perte linguistique

en linguistic loss

189

hizkuntza-gatazka (4)

Bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia. Gizartean erabilera-eremuak eta funtzio sozialak eskuratzeta eta, ondorioz, bestetari nolabait kentzea da lehia horren funtsa.

- es** conflicto lingüístico
- fr** conflit linguistique
- en** linguistic conflict

190

hizkuntza-hilketa (4)

Sin. linguizidio (3)
Hizkuntza-ordezkapena sustatzen duen politikaren ondorioz, hizkuntza baten heriotza eragitea.

- es** lingüicidio
- fr** linguicide
- en** linguisticide

191

hizkuntza-integrazio (4)

Populazio etorkinak bertako hizkuntza eskuratzeta, bertako hizkuntza-komunitateko kide egitea.

- es** integración lingüística
- fr** intégration linguistique
- en** linguistic integration

192

hizkuntza-jarraipen (4)

Pertsona edo hizkuntza-komunitate batek bere hizkuntzari eustea eta, beraz, hizkuntza hori ez galtzea.

- es** continuidad lingüística
- fr** continuité linguistique
- en** language maintenance

193

hizkuntza-kolonialismo (4)

Kolonietan edo menderatutako lurraldeetan metropoliko hizkuntza ezartze-ko prozesua. Hizkuntza menderatua eta hizkuntza horretako hiztunak botere-eremuetatik baztertuz gauzatzen da.

- es** colonialismo lingüístico
- fr** colonialisme linguistique
- en** linguistic colonialism

194

hizkuntza-menderakuntza (4)

Hizkuntza bateko hiztunak jarduera publiko eta formaletarako beste hizkuntza bat ikasi eta erabili behar izaten duen egoera soziolinguistikoa.

- es** subordinación lingüística
- fr** subordination linguistique
- en** linguistic subordination

195

hizkuntza-merkatu (4)

Hizkuntzek duten erabilgarritasunaren edo hizkuntza horiek erabiltzeko behar-raren arabera eratzen den balio-sistema.

- es** mercado lingüístico
- fr** marché linguistique
- en** linguistic market

hizkuntza-mugikortasun

Ik. hizkuntza-bilakaera

196

hizkuntza-ordezkapen (4)

Hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua.

Hizkuntza menderatzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza desagertu ere egin daiteke.

- es** sustitución lingüística; desplazamiento lingüístico
- fr** substitution linguistique; transfert linguistique
- en** language shift; language transfer

197

hizkuntza-oreka (4)

Hizkuntzei ahalik eta funtzio gehien lortzeko aukera eskaintzen dien egoera.

- es** equilibrio lingüístico
fr équilibre linguistique
en linguistic balance

198

hizkuntza-transmisio (4)

Hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzea, bereziki familiaren eta hezkuntza-sistemaren bidez.

- es** transmisión lingüística
fr transmission linguistique
en linguistic transmission

199

hizkuntza-ukipen (4)

Gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa.

- es** contacto de lenguas; contacto lingüístico
fr contact de langues
en language contact

200

iraultza soziolinguistikoa (4)

Hizkuntza-ordezkapeneranzko bidea zeramaten erabilera, jarrera eta ohitura linguistikokoak errotik aldatzea eta kontrako noranzkoa ezartzea.

- es** revolución sociolingüística
fr révolution sociolinguistique
en sociolinguistic revolution

201

kanpo-ehlebitasun (4)

Bigarren hizkuntza kanpo-harremantako hizkuntza gisa bakarrik behar duen lurraldearen ehlebitasuna. Bertako hizkuntzak betetzen ditu barne-komunikazioko behar guztiak.

- es** bilingüismo exterior
fr bilinguisme extérieur
en external bilingualism

202

kulturazio (4)

Kultura batek bere jatorrizko ezaugarriak mantendu eta indartzeko prozesua.

- es** culturación
fr cultureuration
en cultureuration

linguizidio

Ik. hizkuntza-hilketa

203

lurralde-ehlebitasun (4)

Bi hizkuntzak argi bereizitako bi lurralde-eremu desberdinetan hitz egiten diren ehlebitasuna.

- es** bilingüismo territorial
fr bilinguisme territorial
en territorial bilingualism

minorizazio

Ik. gutxitze

204

noranzko bakarreko ehlebitasun (4)

Sin. ehlebitasun aldebakar (3)
 Noranzko batean bakarrik garatzen den ehlebitasuna. Hizkuntza gutxituko hiztunek hizkuntza menderatzailea ikastera behartuta daude; hizkuntza menderatzailekoak, berriz, ehlebakar izaten segi dezakete.

- es** bilingüismo unidireccional;
 bilingüismo unilateral
fr bilinguisme unilatéral
en unilateral bilingualism

205

pidginizazio (4)

Pidgin bat sortzeko hizkuntzak jasaten dituen eraldakuntzen multzoa.

- es** pidginización
fr pidginisation
en pidginization

206

sasielebitasun (4)

Elebitasuna izan arren, ele-parekotasunera iristen ez den egoera; hots, bi hizkuntzetako baten garapena eta erabilera guztizkoa ez den egoera.

- es** pseudobilingüismo
- fr** pseudo-bilinguisme
- en** pseudo-bilingualism

207

tartekatze (4)

Hizkuntza menderatuaren eta errealitatearen artean hizkuntza menderatzailea ezartzea. Errealitatea eta berrikuntzak hizkuntza menderatzailearen bitartez iristen dira hizkuntza menderatura, ez dago zuzeneko kontakturik.

- es** interposición
- fr** interposition
- en** interposition

6.2 Hizkuntzen tipologia

208

berezko hizkuntza (4)

Sin. bertako hizkuntza (4)

Lurralde batek historikoki berezkoa duen hizkuntza.

es lengua propia; lengua autóctona**fr** langue autochtone**en** native language

bertako hizkuntza

Ik. berezko hizkuntza

eremu urriko hizkuntza

Ik. gutxiengoaren hizkuntza

209

etxeko hizkuntza (4)

Etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

es lengua hablada en casa**fr** langue parlée au foyer**en** language spoken at home

210

familia-hizkuntza (4)

Etxean ez ezik, familia-giroan senitartekoekin hitz egiten den hizkuntza.

es lengua familiar**fr** langue familiale**en** family language

211

gehiengoaren hizkuntza (4)

Hizkuntza-ukipena bizi duen lurralde batean, hiztun gehienek erabiltzen duten hizkuntza.

es lengua mayoritaria**fr** langue majoritaire**en** majority language

212

gutxiengoaren hizkuntza (4)

Sin. eremu urriko hizkuntza (3)

Hizkuntza-ukipenean bizi den lurralde batean, gutxiengo batek erabiltzen duen hizkuntza.

es lengua minoritaria**fr** langue minoritaire**en** minority language

213

herri-hizkuntza (4)

Herritarrek erabiltzen duten bertako hizkuntza.

es lengua vernácula**fr** langue vernaculaire**en** vernacular language

214

hizkuntza bizi (4)

Gaur egun naturalki hitz egiten den hizkuntza.

es lengua viva**fr** langue vivante**en** living language

215

hizkuntza gutxitu (4)

Sin. mendeko hizkuntza (3)

Hizkuntza-gatazkako egoeran, hizkuntza menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza.

es lengua minorizada; lengua subordinada**fr** langue minorisée; langue minorée**en** minorized language; subordinated language

216

hizkuntza hil (4)

Berezko hitzun guztiak galdu dituelako hitz egiten ez den hizkuntza.

- es** lengua muerta
- fr** langue morte
- en** dead language

217

hizkuntza menderatzaile (4)

Hizkuntza-gatazkako egoeran, hizkuntza menderatuaren hainbat esparru eta funtzio irabazi dituenaz gailen agertzen den hizkuntza.

- es** lengua dominante
- fr** langue dominante
- en** dominant language

218

hizkuntza oso (4)

Gaur egungo gizarte garatuan beharrezkoak diren funtzio guztiak betetzeko gai den hizkuntza.

- es** lengua completa
- fr** langue complète
- en** complete language

219

infrahizkuntza (4)

Hiztunak, elebiduna dela ez adierazteko, jendaurrean ezkututzen duen hizkuntza. Hizkuntza hori hiztunaren berezko hizkuntza izan ohi da, eta gizartearen nolabait gaitzetsia dagoelako ezkututzen du.

- es** infralengua
- fr** infralengue
- en** infralanguage

220

kultura-hizkuntza (4)

Maila jasoko kultura-adierazpenak sortzeko eta zabaltzeko gai den hizkuntza.

- es** lengua de cultura
- fr** langue de culture
- en** language of culture

221

lagunarteko hizkuntza (4)

Eguneroko elkarrizketa eta harreman xeheetan erabiltzen den erregistroa duen hizkuntza.

- es** lengua coloquial
- fr** langue conversationnelle
- en** colloquial language

222

laneko hizkuntza (4)

Lanean erabiltzen den hizkuntza, laneko komunikazioa bideratzeko gaitasuna duena.

- es** lengua de trabajo
- fr** langue de travail
- en** working language

223

lingua franca (4)

Hizkuntza desberdinak dituzten talde edo gizabanakoek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza.

- es** lingua franca
- fr** lingua franca
- en** lingua franca

224

literatura-hizkuntza (4)

Literatura sortzeko erabiltzen den hizkuntza; literaturan erabiltzeko moduko erregistro landua duen hizkuntza.

- es** lengua literaria
- fr** langue littéraire
- en** literary language

mendeko hizkuntza

Ik. hizkuntza gutxitu

225

nazioarteko hizkuntza (4)

Herralde desberdinetako hiztunek elkar ulertzeko erabiltzen duten hizkuntza.

- es** lengua internacional
- fr** langue internationale
- en** international language

226

ukipen-hizkuntzak (4)

Gizarte berean mintzatzen diren hizkuntza desberdinak; Euskal Herriaren kasuan, euskara, gaztelania eta frantsesa nagusiki.

es lenguas en contacto

fr langues en contact

en languages in contact

227

zibilizazio-hizkuntza (4)

Munduko zibilizazio-mota batean nagusi den hizkuntza; adibidez, ingelesa, gaur egungo mendebaldeko zibilizazioan.

es lengua de civilización

fr langue de civilisation

en language of civilization

228

zientzia-hizkuntza (4)

Testu zientifikoen ezaugarri linguistikoak eskaintzeko moduko erregistroa duen hizkuntza. Ezaugarri horiek dira, besteak beste, lexikoaren zorrotasuna, formalizazio-maila handia, sintaxi sistematizatua, estilo objektibo eta inperzonal.

es lengua científica

fr langue scientifique

en scientific language

6.3 Fenomeno linguistikoak

229

barbarismo (4)

Beste hizkuntza batetik hartutako hitz edo esapide bertakotu gabea, hau da, arauen bidez onartuta ez dagoena.

es barbarismo

fr barbarisme

en barbarism

230

hizkuntza-aldaketa (4)

Hizkuntza baten ezaugarri linguistikoak etengabe aldatzeko edo galtzeko prozesua.

es cambio lingüístico

fr changement linguistique

en linguistic change

231

hizkuntza-dibergentzia (4)

Hizkuntzen ezaugarri linguistiko bereizgarriak areagotzen dituen prozesua. Hizkuntza-sistemak aldentu egiten dira elkarrengandik prozesu horretan.

es divergencia lingüística

fr divergence linguistique

en linguistic divergence

232

hizkuntza-egitura (4)

Hizkuntza bat osatzen duten elementu fonologiko, sintaktiko, morfologiko eta semantikoen sistema.

es estructura lingüística

fr structure linguistique

en linguistic structure

233

hizkuntza-familia (4)

Jatorri beretik sortu den hizkuntza-multzoa.

OHARRA: Euskarak hurbilen dituen hizkuntzak (gaskoia, frantsesa, espainiera) hizkuntza-familia berekoak dira, latinetik eratorritako hizkuntza erromantzeak baitira; euskara familia horretatik kanpo dagoenez, hizkuntza horietako bat hitz egiten dutenentzat nolabait zailagoa gerta liteke, teorikoki behintzat, euskara ikastea beste hizkuntza erromantze bat ikastea baino.

es familia lingüística

fr famille linguistique

en language family

234

hizkuntza-interferentzia (4)

Hizkuntza-ukipenaren ondorioz, hizkuntza bateko elementu linguistiko (fonetiko, morfosintaktiko edo lexiko) bat beste hizkuntzan ezartzea, hizkuntza honek berezkoa duena baztertuta.

es interferencia lingüística

fr interférence linguistique

en linguistic interference

235

hizkuntza-konbergentzia (4)

Luzaroan ukipen-egoeran izan diren hizkuntzetako baten ezaugarri linguistikoak beste hizkuntzako ezaugarrien arabera moldatzeko prozesua. Bi hizkuntza-sistemak hurbildu egiten dira prozesu horretan.

es convergencia lingüística

fr convergence linguistique

en linguistic convergence

236

kalko (4)

Hizkuntza batek beste hizkuntza bateko hitza edo esamoldea itzuliz osatzen duen mailegua.

- es** calco
- fr** calque
- en** loan; calque

237

mailegu (4)

Beste hizkuntza batetik hartutako hitz edo terminoa.

- es** préstamo
- fr** emprunt
- en** borrowing

238

mailegu semantiko (4)

Hitz bera bi hizkuntzatan erabiltzen denean, hizkuntza batean hitz horrek berez ez duen (baina beste hizkuntzan baduen) esanahia mailegatzea beste hizkuntzatik. Adibidez, nabigatu hitzari beste esanahi bat gehitu zaio (Interneteko gune batetik bestera ibiltzea), ingelesetik abiatuta.

- es** préstamo semántico
- fr** emprunt sémantique
- en** loan shift

239

neologismo (4)

Hizkuntza bateko hitz edo unitate lexikal berria, hizkuntza horren legeei jarraituz sortua edo beste hizkuntza batetik mailegatua.

- es** neologismo
- fr** néologisme
- en** neologism

240

solezismo (4)

Hitz edo adierazpen bat oker erabiltzea edo hizkuntzaren sintaxi zuzena aldatzea.

- es** solecismo
- fr** solécisme
- en** solecism

241

substratu (4)

Lurralde batean hitz egiten den hizkuntzaren aurretik lurralde horretan hitz egiten zen hizkuntzak ondorengo bigarren hizkuntza hartan utzi dituen ezaugarri linguistikoen multzoa.

- es** sustrato
- fr** substrat
- en** substratum

242

superestratu (4)

Hizkuntza baten lurraldean sartu den beste hizkuntza batek, lurralde horretatik desagertu ondoren, jatorrizko hizkuntza hartan uzten dituen ezaugarri linguistikoen multzoa.

- es** superestrato
- fr** superstrat
- en** superstratum

6.4 Erabilera eta interakzioa

243

elkar-ulertze (4)

Hizkuntza edo hizkuntza-barietate desberdinak erabiltzen dituzten hiztunek elkar ulertzeko duten gaitasuna edo ahalmena.

- es** intercomprensión
- fr** intercompréhension
- en** intercomprehension

244

erabilera enblematiko (4)

Hizkuntzak ikur gisa duen garrantziarengatik egiten den erabilera sinboliko edo apologetikoa, gero benetan era naturalean erabiltzen ez denean.

- es** uso emblemático
- fr** usage emblématique
- en** emblematic usage

245

erabilera intentsional (4)

Erabilera konbentzionalaren eremua utzi eta hizkuntza beste eremu batean erabiltzea, solaskidearengan eragin jakin bat sortzeko.

- es** uso intencional
- fr** usage intentionnel
- en** intentional usage

246

erabilera konbentzional (4)

Hizkuntza erabilera-arau ohikoenen sistemari jarraituz erabiltzea.

- es** uso convencional
- fr** usage conventionnel
- en** conventional usage

247

erabilera-eremu (4)

Hizkuntza erabiltzen den esparru eta une guztien multzoa. Kontuan hartzen da nork, nori eta noren aurrean erabiltzen den, zeri buruz eta zein egoeratan, nola, zein asmorekin, eta abar.

- es** ámbito de uso
- fr** domaine d'utilisation
- en** language domain

248

gehiegizko erabilera (4)

Faktore jakin batzuegatik hizkuntza bat ikasi eta erabiltzen denean, faktore horiek ez daudenean ere hizkuntza hori erabiltzea. Adibidez, lan-kontuengatik ingelesa ikasi duen norbaitek ingelesa familian erabiltzea.

- es** uso excesivo
- fr** usage abusif
- en** excessive usage

249

hizkuntza-erabilera (4)

Pertsona batek hizkuntza edo hizkuntza-barietate baten bitartez, ahoz edo idatziz, komunikatzen eta jasotzen duena.

- es** uso lingüístico; uso de la lengua
- fr** usage de la langue; usage linguistique
- en** language usage

hizkuntza-egagutza

Ik. hizkuntza-gaitasun

250

hizkuntza-funtzionaltasun (4)

Hizkuntza bat eremu eta funtzio formal nahiz informaletan zenbateraino erabiltzen den adierazten duen maila.

- es** funcionalidad lingüística
fr fonctionnalité linguistique
en linguistic functionality

251

hizkuntza-gaitasun (4)

Sin. hizkuntza-egagutza (3)
 Hiztun batek hizkuntzaz duen egagutza-maila. Gaitasun horren bidez, perpau-sak sortzeko eta ulertzeko gai da hiztuna, baita perpaus bat gramatikala den edo ez den ebazteko ere.

- es** competencia lingüística;
 conocimiento lingüístico
fr compétence linguistique;
 connaissance linguistique
en linguistic competence; language knowledge

252

hizkuntza-hautaketa (4)

Komunikazio-interakzio baterako hizkuntza jakin bat edo beste bat hautatzea. Komunikatu nahi duen egoera guztietan egin behar du hiztunak hautaketa hori.

- es** elección de la lengua
fr élection de la langue
en language choice

253

hiztun (4)

Hizkuntza jakin batean hitz egiten duen edo hitz egin dezakeen pertsona.

- es** hablante
fr paroleur
en speaker

254

interakzio (4)

Bi hiztun edo gehiago hizkuntzaren bidez komunikatzeko ekintza. Testuinguruak mugatutako ekintza denez, hiztunak hainbat aukera egin behar ditu testuinguru horretara egokitzeko.

- es** interacción
fr interaction
en interaction

255

kode-aldaketa (4)

Esakune edo berbaldi berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz hitz egitea; adibidez, esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea.

- es** alternancia de códigos
fr alternance codique
en code switching

256

kodea negoziatze (4)

Interakzio bat hastean, hiztunek zein hizkuntza edo barietate erabili behar duten antzemateko behar duten fase laburra.

- es** negociación de código
fr négociation du code
en code negotiation

257

komunikazio-egoera (4)

Komunikazioan parte hartzen duten baldintza guztien multzoa: lekua, unea, komunikazio-partaideak, eta faktore hauen arteko harremanak.

OHARRA: Adibidez, baldintza horien arabera, hizkuntza edo hizkuntza-barietate bat edo beste bat erabiltzeko hautua egingo da.

- es** situación comunicativa
fr situation communicative
en communicative situation

258

komunikazio-gaitasun (4)

Hiztunak egoera desberdinetan behar bezala komunikatzeko behar dituen ezagutzen multzoa. Arlo honetan, garrantzi handia du hizkuntza-bariedade edo kode aproposa aukeratzeak, edo konbentzio sozial eta linguistikoak errespetatzeak.

- es** competencia comunicativa
fr compétence communicative
en communicative competence

259

markatze-eredu (4)

Hizkuntza-komunitate batean, komunikazio-interakzio bakoitzerako hizkuntza-bariedade jakin bat markatu gabekotzat jotzen duen arau-sistema. Sistema edo eredu horren arabera, beste bariedade bat erabiltzea erabilera markatu gisa hautemango litzateke.

- es** modelo de marcaje
fr modèle de marquage
en marking model

260

pragmatika (4)

Hizkuntza komunikazioan nola erabiltzen eta ulertzen den aztertzen duen diziplina. Perpausen, hiztunen eta testuinguru eta egoeren arteko erlazioez arduratzen da bereziki.

- es** pragmática
fr pragmatique
en pragmatics

261

proxemika (4)

Solaskideek beren artean duten distantzia fisikoaren, gorputz-jarreraren eta beren artean dituzten (ala ez dituzten) kontaktu fisikoen azterketa. Faktore horiek beha daitezke, sexuaren, adinaren, aurrekin sozial eta kulturalen arabera eta baita elkarrekiko dituzten iritzien arabera ere.

- es** proxémica
fr proxémique
en proxemics

262

translinguistika (4)

Hizkuntza-erabileraren ikuspegi osoa izateko hiztunaren mezu hutsa ez ezik hiztunaren eta entzuleen asmoak, pertzepzioak eta testuinguruko bestelako elementuak ere kontuan hartu behar direla kontsideratzen duen ikuspegia. Hau da, hiztunaren mezua ez da berez existitzen, lehenago aipatutako osagai horien guztien mende dago bere izaera.

- es** translingüística
fr translinguistique
en translinguistics

7. ARLO INSTITUZIONALA ETA ZUZENBIDE-ARLOA

263

diskriminazio positibo (4)

Hizkuntza baten aurka luzaro gertatu den diskriminazio baten eragina alde-erantzizkatzeko hizkuntza horren alde hartzen diren erabaki politiko eta sozia-
len multzoa.

es discriminación positiva**fr** discrimination positive**en** positive discrimination

264

estatu eleaniztun (4)

Hizkuntza ofizial bat baino gehiago mintzatzen den estatua.

es estado multilingüe**fr** état multilingue**en** multilingual state

265

estatu hedakor (4)

Ofizialtasuna hizkuntza bati bakarrik emateaz gainera, bere lurraldeko gaine-
rako hizkuntzei behar bezala garatzeko bideak ukatzen dizkion estatua.

es estado expansionario**fr** état expansionniste**en** expansionary state

266

hizkuntza koofizial (4)

Beste hizkuntza ofizial bat (edo gehia-
go) ere baduen lurralde bateko hizkun-
tza ofiziala.

es lengua cooficial**fr** langue co-officielle**en** co-official language

267

hizkuntza ofizial (4)

Estatus ofiziala duen hizkuntza.
Ofizialtasunak herritarrei hizkuntza
hori erabiltzeko hainbat eskubide aitortzen die.

OHARRA: Hauek dira ofizialtasunaren legezko ondorioak: hiztunak eskubidea du hizkuntza balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal izateko; inork ezingo dio eskatu hiztunari berak hautatutako hizkuntza ofiziala ez den besteren batean mintza dadin; hiztunak eskubidea du, orobat, mintzakidea erakunde publikoa bada, hark hautatutako hizkuntzan erantzun diezaien.

es lengua oficial**fr** langue officielle**en** official language

268

hizkuntza-agintaritza (4)

Hizkuntzaren erabilera zuzena mugatzeko arau linguistikoak ezartzen dituen erakundea. Euskararen kasuan, Euskaltzaindia.

es autoridad lingüística**fr** autorité linguistique**en** linguistic authority

269

hizkuntza-eskakizun (4)

Lanpostu jakin batzuetan, bereziki administrazioaren lanpostuetan, aritze-ko frogatu behar den hizkuntza-gaitasun maila.

OHARRA: Lanpostu publiko bakoitzak bere euskarazko hizkuntza-eskakizuna du esleituta, eta hizkuntza-eskakizun horrek zehazten du lanpostua eskuratzeko eta bertan lan egiteko beharrezkoa den euskarazko hizkuntza-gaitasuna.

- es** perfil lingüístico
- fr** profil linguistique
- en** linguistic profile

270

hizkuntza-eskubideak (4)

Herritarrek, bakarka nahiz taldean, bakoitzak bere lurraldearen barruan, bere hizkuntzan bizitzeko duen eskubidea, ordenamendu juridikoak aitorturikoa.

- es** derechos lingüísticos
- fr** droits linguistiques
- en** linguistic rights

271

hizkuntza-legeria (4)

Hizkuntzen erabilera arautzen duten legeen eta administrazio-arauen multzoa.

- es** legislación lingüística
- fr** législation linguistique
- en** linguistic legislation

272

hizkuntza-zuzenbide (4)

Herritarrek, bakarka nahiz taldean, jatorrizko lurraldean beren hizkuntzan bizitzeko duten eskubidearen alde guztiak arautzen dituen ordenamendu juridikoaren atala.

- es** derecho lingüístico
- fr** droit linguistique
- en** linguistic law

8. TEKNIKAK ETA METODOAK

273

adierazle soziolinguistiko (4)

Soziolinguistikaren ikuspegitik azter daitekeen aldagaia; bereziki, estratifikazio sozialaren arabera azter daitekeena.

- es** indicador sociolingüístico
fr indicateur sociolinguistique
en sociolinguistic indicator

274

corpus (4)

Azterketa soziolinguistiko bat egiteko biltzen diren datuen, pertsonen edo bestelako elementuen multzoa.

- es** corpus
fr corpus
en corpus

275

diskurtsoaren analisi (4)

Hizkuntzaren erabilera eta hiztunaren hizkuntza-portaera harreman sozialen eta, bereziki, ideologia-prozesuen definitzaile gisa aztertzen duen analisi-moda.

- es** análisis del discurso
fr analyse du discours
en discourse analysis

276

elkarrizketa soziolinguistiko (4)

Informatzailearengandik datu soziolinguistikoak lortzeko, ikerlariak harekin egiten duen elkarrizketa. Elkarrizketa inkesta modura edo solasaldi informal modura egituratu daiteke.

- es** entrevista sociolingüística
fr entrevue sociolinguistique
en sociolinguistic interview

277

elkarrizketa-analisi (4)

Hiztunen arteko elkarrizketa, ahozko interakzioa, aztertzen duen analisi-moda. Alderdi linguistikoez gain, arreta berezia eskaintzen zaie parte-hartzaileen ezaugarri sozialei eta psikosozialei.

- es** análisis conversacional
fr analyse conversationnelle
en conversational analysis

278

erabilera-tasa (4)

Erabilera-eremu jakin batean hizkuntza bat erabiltzen den proportzioa adierazten duen tasa.

- es** índice de uso
fr taux d'utilisation
en usage rate

279

estatistika (4)

Pertsonen edo bestelako unitateen multzo bati dagozkion zenbakizko datuak biltzeko, sailkatzeko eta aztertzeko hainbat teknika eta analisi matematiko erabiltzen dituen zientzia.

- es** estadística
fr statistique
en statistics

280

hizkuntza-atlas (4)

Dialektologia edo hizkuntza-geografia-ko ikerketa baten emaitzak mapetan irudikatuta eskaintzen dituen datu-bilduma.

- es** atlas lingüístico
fr atlas linguistique
en linguistic atlas

281

hizkuntza-gutxiengo (4)

Estatu bateko hizkuntza ofiziala edo nagusia ez den beste hizkuntza bat hitz egiten duen giza taldea.

es minoría lingüística**fr** minorité linguistique**en** linguistic minority

282

informatzaile (4)

Soziolinguistika-ikerketa batean, iker-tzaileari analisirako datuak ematen dizkion hitzuna.

es informante**fr** informateur**en** informant

283

inkesta soziolinguistiko (4)

Pertsona-kopuru jakin batek galdesorta bati erantzutean eta ikerlariak erantzun horiek aztertzean datzan ikerketa-teknika. Gizabanakoen eta giza taldeen ezaugarri, joera edo portaera soziolinguistikoak hautematea da helburua.

es encuesta sociolingüística**fr** enquête sociolinguistique**en** sociolinguistic poll

284

isoglosa (4)

Ezaugarri edo fenomeno linguistiko jakin bat gertatzen den eremua mapa batean mugatzen duen marra.

es isoglosa**fr** isoglosse**en** isogloss

285

mapa soziolinguistiko (4)

Lurralde bateko datu soziolinguistikoak eta datu horien araberako egoera soziolinguistikoak irudikatzen dituen mapa.

es mapa sociolingüístico**fr** carte sociolinguistique**en** sociolinguistic chart

286

metodologia soziolinguistiko (4)

Soziolinguistikako ikerketak egiteko metodoen multzoa.

es metodología sociolingüística**fr** méthodologie sociolinguistique**en** sociolinguistic methodology

287

parte hartuzko behaketa (4)

Ikerlaria aztertu beharreko ingurune edo giza taldean sartu eta bertako jardunean parte hartzeko ikerketa-metodoa.

es observación participante**fr** observation participante**en** participant observation

9. SOZIOLINGUISTIKAREN ADARRAK, ESKOLAK ETA KORRONTEAK

288

demolinguistika (4)

Hizkuntza baten egoera soziolinguistikoaren eta hiztunen ezaugarri demografikoen arteko erlazioa aztertzen duen diziplina.

- es** demolinguística
- fr** démolinguistique
- en** demolingustics

289

ekolinguistika (4)

Hizkuntzaren eta ingurunearen arteko harremana ikuspegi ekologikotik aztertzen duen diziplina. Alde batetik, elkarrekin harremanak dituzten sistema dinamikotzat hartzen ditu hizkuntzak eta hizkuntza-komunitateak, eta haien arteko orekaren eta hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik aztertzen ditu; eta, era berean, ingurunea moldatzen duen elementu gisa aztertzen du hizkuntza.

- es** ecolinguística
- fr** écolinguistique
- en** ecolinguistics

290

esparruen teoria (4)

Sin. funtzioen teoria (4)

Pertsonen edo giza taldeen hizkuntza-portaera gobernatzan duten esparru edo funtzioak daudela definitzen duen teoria. Esparru horiek kategoriak dira, hiztunak erabilera-esparru desberdintzat hartzen dituen unitateak, fisiko nahiz mentalak. Esparru horietako batean dagoela hautematen duenean, hizkuntza bat edo beste bat erabiltzeko hautua egingo du hiztunak.

- es** teoría de los espacios; teoría de las funciones

funtzioen teoria

Ik. esparruen teoria

291

gatazkaren soziolinguistika (4)

Hizkuntza-gatazka eta hizkuntza-ordezkapeneko prozesuetan arreta berezia jartzen duen azterketa-arlo soziolinguistikoa.

- es** sociolingüística del conflicto
- fr** sociolinguistique du conflit
- en** conflict sociolinguistics

292

gatazkaren teoria (4)

Harmonia- eta integrazio-fenomenoetan baino arreta handiagoa gatazka-egoera eta -prozesuetan jartzen duen ikuspegi soziologikoa.

- es** teoría del conflicto
- fr** théorie du conflit
- en** conflict theory

293

glotopolitika (4)

Hizkuntzaren eta testuinguru soziopolitikoaren arteko harremanak aztertzen dituen diziplina.

- es** glotopolítica
- fr** glottopolitique
- en** glottopolitics

294

hizkuntza-egokitzearen teoria

(4)

Bi hizkuntza-bariedade desberdin erabiltzen dituzten hiztunen arteko interakzioa gertatzen denean, hiztunek bariedade horiek egokitze joera azaltzen duen teoria. Egokitze-joera izan daiteke hizkuntza-bariedadeak hurbiltzea nahiz aldentzea, jarrera eta helburuen arabera.

es teoría de la acomodación lingüística

fr théorie de l'accommodation linguistique

en linguistic accommodation theory

295

hizkuntza-geografia (4)

Hizkuntza-bariedadeak edo bestelako hizkuntza-fenomenoak lurraldean eta gizarteak nola banatzen diren aztertzen duen diziplina.

es geografía lingüística

fr géographie linguistique

en linguistic geography

296

hizkuntzaren soziologia (4)

Diziplina soziolinguistikoa, gizarteak hizkuntzarekin duen harremana aztertzen duena.

OHARRA: Askotan nahasi egiten dira soziolinguistika eta hizkuntzaren soziologia. Bereizgarri gisa esan daiteke lehenak hizkuntza aztertzen duela, testuinguru sozialarekin duen harremanaren bitartez, eta bigarrenak, berriz, gizarteak duela aztergai.

es sociología del lenguaje

fr sociologie du langage

en sociology of language

297

interakzioaren soziolinguistika

(4)

Zuzeneko komunikazio-interakzioan arreta berezia jartzen duen azterketa-arlo soziolinguistikoa.

es sociolingüística interaccional

fr sociolinguistique interactionnelle

en interactional sociolinguistics

298

kodeen teoria (4)

Maila apaleko gizarte-taldean hizkuntza egungo hezkuntza formalera egokitzen ez dela dioen teoria. Horrela, bi hizkuntza-kodeen (landuaren eta murriztuaren) artean dagoen aldea faktore garrantzitsua izan daiteke eskola-porrotean.

es teoría de los códigos

fr théorie des codes

en theory of codes

299

makrosoziolinguistika (4)

Analisiaren abiapuntutzat mikrosoziolinguistikak baino eremu zabalagoa hartzen duen soziolinguistikaren ikuspegia. Gizarteak hartzen da analisigai, eta hizkuntza gizarte hori egituratzen duen funtsezko elementu gisa aztertzen da.

es macrosociolingüística

fr macrosociolinguistique

en macrosociolinguistics

300

mikrosoziolinguistika (4)

Analisiaren abiapuntutzat makrosoziolinguistikak baino eremu txikiagoa hartzen duen soziolinguistikaren ikuspegia. Hizkuntza bera hartzen da analisisgai, eta gizartea hizkuntzaren egitura baldintzatzen duen funtsezko elementu gisa aztertzen da.

- es** microsociolingüística
fr microsociolinguistique
en microsociolinguistics

301

soziolinguistika (4)

Hizkuntza bere testuinguru sozialean aztertzen duen zientzia. Diziplina honen aztergaiak dira, besteak beste, egitura eta faktore sozialek hizkuntzan duten eragina, hizkuntzaren funtzio sozialak, hitzunek faktore sozialen arabera dituzten hizkuntza-erabilerak, joerak eta jarrerak, hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntza, eta hizkuntza-bariazioa.

- es** sociolingüística
fr sociolinguistique
en sociolinguistics

302

soziolinguistika bariazionista (4)

Hizkuntza-bariazioan arreta berezia jartzen duen azterketa-arlo soziolinguistikoa.

- es** sociolingüística variacionista
fr sociolinguistique variationiste
en variationist sociolinguistics

303

soziolinguistika historiko (4)

Prozesu soziolinguistikoen bilakaera historikoan arreta berezia jartzen duen azterketa-arlo soziolinguistikoa.

- es** sociolingüística histórica
fr sociolinguistique historique
en historical sociolinguistics

304

soziolinguistika matematiko (4)

Soziolinguistika parametro matematikoetan analizatzen duen azterketa-arlo soziolinguistikoa.

- es** sociolingüística matemática
fr sociolinguistique mathématique
en mathematical sociolinguistics

305

sozioterminologia (4)

Terminologia testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta aztertzen duen diziplina.

- es** socioterminología
fr socioterminologie
en socioterminology

10. HIZTUNEN TIPOLOGIA (HEGO EUSKAL HERRIA)

10.1 Hizkuntza-gaitasuna

306

elebidun (4)

Euskara eta beste hizkuntza bat ondo ulertu eta hitz egiten dituen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** bilingüe
Persona que entiende y habla bien el euskera y otra lengua.
- fr** bilingue
Personne qui comprend et parle bien le basque et une autre langue.
- en** bilingual speaker
A person who understands and speaks well Basque and another language.

307

elebidun hartzaile (4)

Euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin ez arren, ondo ulertu edo irakurtzen duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** bilingüe pasivo
Persona que habla el euskera con dificultad o que, no hablándolo, lo entiende o lo lee bien.
- fr** bilingue passif
Personne qui parle le basque avec difficulté ou qui le comprend ou le lit bien, sans toutefois le parler.
- en** passive bilingual speaker
A person who speaks Basque with difficulty or who understands or reads it well, even though he cannot speak it.

308

erdaldun elebakar (4)

Euskaraz batere hitz egiten ez duen pertsona, eta ez ondo ulertzen ez irakurtzen duena.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** erdaldun monolingüe
Persona que no habla nada el euskera y no lo entiende ni lo lee bien.
- fr** hispanophone monolingue
Personne qui ne parle pas du tout le basque et ne le comprend ni ne le lit bien.
- en** monolingual non-basque speaker
A person who neither speaks Basque nor understands or reads it well.

10.2 Hizkuntza-bilakaera (BILA indizea)

309

erdaldun zahar (4)

Lehen hizkuntza gaztelania izanik, euskaraz ez hitz egin, ez ondo ulertu, ez irakurri ere egiten ez duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** castellanófono
Persona cuya primera lengua ha sido el castellano y que no habla nada el euskera y no lo entiende ni lo lee bien.
- fr** hispanophone
Personne dont la première langue a été l'espagnol, qui ne parle pas le basque du tout et qui ne le comprend ni ne le lit bien.
- en** spanish speaker
A person for whom Spanish is his/her first language, and who does not speak Basque nor understands nor reads it well.

310

euskaldun berri (4)

Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** El término “euskaldun berri” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido otra distinta del euskera y que lo entiende y lo habla bien.
- fr** Le terme “euskaldun berri” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été une langue autre que le basque et qui le comprend et le parle bien.
- en** The term “euskaldun berri” is used in Basque to name a person for whom another language other than Basque is his/her first language, but who understands and speaks Basque well.

311

euskaldun zahar (4)

Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** El término “euskaldun zahar” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido el euskera y que entiende y habla bien el euskera.
- fr** Le terme “euskaldun zahar” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été le basque et qui le comprend et le parle bien.
- en** The term “euskaldun zahar” is used in Basque to name a person for whom Basque is his/her first language, and who understands and speaks it well.

312

gutziz erdaldundu (4)

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izanik, euskaraz ez hitz egin, ez ondo ulertu, ez irakurri ere egiten ez duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** totalmente castellanizado
Persona cuya primera lengua ha sido el euskera o el euskera y el castellano, y que no habla nada el euskera y no lo entiende ni lo lee bien.
- fr** totalement hispanisé
Personne dont la première langue a été le basque, ou le basque et l'espagnol, qui ne parle pas du tout le basque et qui ne le comprend ni ne le lit bien.
- en** totally spanishised speaker
A person for whom either Basque alone or Basque and Spanish are first languages, but who does not speak Basque, nor understands nor reads it well.

313

jatorrizko elebidun (4)

Lehen hizkuntzak euskara eta gaztelania izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** bilingüe de origen
Persona cuyas primeras lenguas han sido el euskera y el castellano y que entiende y habla bien el euskera.
- fr** bilingue d'origine
Personne dont les premières langues ont été le basque et l'espagnol, et qui comprend et parle bien le basque.
- en** native bilingual speaker
A person for whom both Basque and Spanish are first languages, and who understands and speaks Basque well.

314

partzialki erdaldundu (4)

Lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izanik, euskaraz nekez hitz egiten duen edo, hitz egiten ez badu ere, ondo ulertzen eta irakurtzen duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** parcialmente castellanizado
Persona cuya primera lengua ha sido el euskera o el euskera y otra lengua, y que habla el euskera con dificultad o que, no hablándolo, lo entiende o lo lee bien.
- fr** partiellement hispanisé
Personne dont la première langue a été le basque, ou le basque et l'espagnol, et qui parle le basque avec difficulté, ou qui le comprend ou le lit bien, sans toutefois le parler.
- en** partially spanishised speaker
A person for whom either Basque alone or Basque and Spanish are first languages, but who speaks Basque with difficulty or does not speak it at all, despite understanding or reading it well.

315

partzialki euskaldun berri (4)

Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz nekez hitz egiten edo, hitz egiten ez badu ere, ondo ulertzen eta irakurtzen duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** El término “partzialki euskaldun berri” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido otra distinta del euskera y que habla el euskera con dificultad o que, no hablándolo, lo entiende o lo lee bien.
- fr** Le terme “partzialki euskaldun berri” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été une quelconque langue autre que le basque et qui parle le basque avec difficulté, ou qui le comprend ou le lit bien, sans toutefois le parler.
- en** The term “partzialki euskaldun berri” is used in Basque to name a person for whom another language other than Basque is his/her first language, and who speaks Basque with difficulty or who understands or reads it well, despite not speaking it.

10.3 Etxeko erabilera (ERABIL indizea)

316

euskaldun berri aktibo (4)

Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen eta etxeko hizkuntza euskara duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

es El término “euskaldun berri aktibo” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido otra distinta del euskera, que entiende y habla bien el euskera y para quien la lengua de uso en casa es el euskera.

fr Le terme “euskaldun berri aktibo” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été une quelconque langue autre que le basque, qui comprend et parle bien le basque et qui, à la maison, utilise le basque.

en The term “euskaldun berri aktibo” is used in Basque to name a person for whom another language other than Basque is his/her first language, but who understands and speaks Basque well and whose primary language at home is Basque.

317

euskaldun berri bietan aktibo (4)

Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen eta etxeko hizkuntza euskara eta erdara dituen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

es El término “euskaldun berri bietan aktibo” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido otra distinta del euskera, que entiende y habla bien el euskera y para quien las lenguas de uso en casa son tanto el euskera como la otra lengua.

fr Le terme “euskaldun berri bietan aktibo” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été une quelconque langue autre que le basque, qui comprend et parle bien le basque et qui, à la maison, utilise aussi bien le basque que l’autre langue.

en The term “euskaldun berri bietan aktibo” is used in Basque to name a person for whom another language other than Basque is his/her first language, but who understands and speaks Basque well and whose primary languages at home are both Basque and the other language.

318

euskaldun berri pasibo (4)

Lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen eta etxeko hizkuntza erdara duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

es El término “euskaldun berri pasibo” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido otra distinta del euskera, que entiende y habla bien el euskera y para quien la lengua de uso en casa es la otra lengua.

fr Le terme “euskaldun berri pasibo” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été une quelconque langue autre que le basque, qui comprend et parle bien le basque et qui, à la maison, utilise l’autre langue.

en The term “euskaldun berri pasibo” is used in Basque to name a person for whom another language other than Basque is his/her first language, but who understands and speaks Basque well and whose primary language at home is the other language.

319

euskaldun zahar aktibo (4)

Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egin duen eta etxeko hizkuntza euskara duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

es El término “euskaldun zahar aktibo” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido el euskera, que lo entiende y lo habla bien y para quien la lengua de uso en casa es el euskera.

fr Le terme “euskaldun zahar aktibo” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été le basque, qui le comprend et le parle bien et qui l’utilise à la maison.

en The term “euskaldun zahar aktibo” is used in Basque to name a person for whom Basque is his/her first language, who understands and speaks it well, and whose primary language at home is Basque.

320

euskaldun zahar bietan aktibo

(4)

Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen eta etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania dituen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** El término “euskaldun zahar bietan aktibo” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido el euskera, que lo entiende y lo habla bien y para quien las lenguas de uso en casa son tanto el euskera como el castellano.
- fr** Le terme “euskaldun zahar bietan aktibo” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été le basque, qui le comprend et le parle bien et qu'utilise à la maison aussi bien le basque que l'espagnol.
- en** The term “euskaldun zahar bietan aktibo” is used in Basque to name a person for whom Basque is his/her first language, who understands and speaks it well, and whose primary languages at home are both Basque and Spanish.

321

euskaldun zahar pasibo (4)

Lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen arren, etxeko hizkuntza gaztelania duen pertsona.

OHARRA: Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko terminoa.

- es** El término “euskaldun zahar pasibo” se utiliza en euskera para denominar a la persona cuya primera lengua ha sido el euskera, que lo entiende y lo habla bien pero cuya lengua de uso en casa es el castellano.
- fr** Le terme “euskaldun zahar pasibo” est utilisé en basque pour nommer la personne dont la première langue a été le basque, qui le comprend et le parle bien mais qui, à la maison, utilise l'espagnol.
